

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EAE-N

Lan eta Justizia Sailaren
Jarduera-plana

2019-2021

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LAN ETA JUSTIZIA
SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTICIA

Lan eta Justizia Saila
Eusko Jaurlaritza
2019ko abendua



Aurkibidea

1. Sarrera	1
1.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak (EAIB)	1
1.2. Plan honek Justizia Sailburuordetzaren 2018-2021eko planifikazio estrategikoetan duen tokia.....	1
1.3. Aurrekariak. Zergatik plan hau orain?	3
1.4. Plangintza honen helburuak.....	4
1.5. Plana prestatzen parte hartu dutenak	4
2. Arau-esparrua	5
3. Aurreikusitako lege-aldaketa, erakundearteko lankidetzak, legebiltzarraren ekimenak eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren proposamena	10
3.1. EAEn aurreikusitako lege-aldaketa.....	10
3.2. Erakundearteko eta justizia-administrazioeko itunak.....	12
3.3. Legebiltzarraren ekimenak	20
3.4. Arartekoaren ebazpena	23
3.5. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2019ko martxoaren 29ko akordioa. EAEko genero-indarkeriaren epaitegiatarako plan integrala.....	25
3.6. Genero-indarkeriaren aurkako koordinaziorako probintzia-batzordeak	26
4. EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak zenbakitan	28
4.1. EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak - 2018.....	28
4.2. EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuen ondorio nagusiak	30
5. Emakumeen aurkako indarkeriaren baliabideak. Epaitegiak eta pertsonak eta zerbitzuak	31
5.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko eskumenak dituzten epaitegiak	31
5.2. Pertsonak.....	32
6. Zerbitzuak	36
6.1. Auzitegiko Balioespen Integraleko Unitateak (ABIU)	36
6.2. Talde Psikosozial Judizialak (TPJ)	41
6.3. Biktimei Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)	44
6.4. Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Euskadiko Koordinazio Zentroa (EIKZ).	50
6.5. Doako Laguntza Juridikoa (DLJ)	51
6.6. Zigorrek Kudeatzeko Euskadiko Zerbitzua (ZKEZ). Gakoa programa.....	52
6.7. Deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak (FE)	56

7. Egoeraren diagnostikoa	59
7.1. Baliabide judizialei eta lege-laguntzari buruzko 2016ko ebaluazioa.....	59
7.2. EAEn indarkeria jasaten duten emakume eta neskatoei arreta emateko sistema hobetzeko hausnarketa kolektiboko prozesua.....	61
7.3. Zerbitzuek beren funtzionamenduari buruz esaten digutena	64
7.4. Biktimek esaten dutena.....	70
8. Jarduera-plana	73
8.1. Eremuak eta helburuak	73
8.2. Ekintzak.....	75
I. Eranskina: erabilitako laburdurak	80

I. Sarrera

Agiri honetan jaso dira azken bi urteetan Lan eta Justizia Sailean (aurrerantzean, LJS) emakumearen aurkako indarkeriaren biktimen gaian (aurrerantzean, EAIB) eta biktimen eta Justizia Administrazioaren (aurrerantzean, JA) arteko harremanen gaian Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE) egindako azterketaren emaitzak, hausnarketak eta dokumentazioa.

Hartara, Lan eta Justizia Sailak datozen urteetan garatu beharreko jardueren planifikazioa zehaztu da, kontuan hartuta erakundearteko lankidetzari buruzko informazioa baita JAk EAIBekiko harremanetan duen funtzionamenduari buruzko informazioa ere.

I.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak (EAIB)

Plan honen ondoreetarako, honako hauek dira EAIB:

- Genero-arrazoien ziozko jarrera biolentoak aurrez aurre jasaten dituzten emakumezko heldu, nerabe eta haurrak.
- Indarkeria hori garatzen den lekuan elkarrekin bizi diren eta, ahulezia-egoeraren zioz, indarkeriaren eragina zuzenean jasaten duten haurrak, nerabeak eta mendeko beste pertsona batzuk, beren generoa edozein dela ere.

I.2. Plan honek Justizia Sailburuordetzaren 2018-2021eko planifikazio estrategikoetan duen tokia

EAIBen gaia lantzen duen Lan eta Justizia Sailaren jarduera-plan hau Justizi Sailburuordetzaren (aurrerantzean, JS) planifikazio estrategikoaren parte da.

Misioa

*Eusko Jaurlaritzaren sailburuordetza honek justiziaren zerbitzu publikoa ematen laguntzen du Euskadin, **herritarrei begira, gizalegez, integrazioa, berdintasuna, hurbiltasuna eta iraunkortasuna** sustatuz.*

Horretarako, teknologia aurreratueta, baliabide material egokietan eta prestakuntza eta motibazioa duten pertsonengan oinarritutako antolaketa- eta kudeaketa-eredu berria eskaintzen dugu.

Eta erantzukidetasunarekiko konpromisoa, elkarlana eta eraginkortasunaren bilaketa dira gure lanerako ardatzak.

Ikuspegia

Tresna erabilgarri eta beharrezkoa izatea:

- gainerako administrazioekiko eta eragile juridikoekiko testuinguru lankide integratu eta eraginkorrak sortzeko, EAEn justiziaren zerbitzu publikoa hobetze aldera,
- antolaketa-eredu berria finkatzeko, kudeaketaren hobekuntzan oinarrituta (barruti judizial guztietan ezarritako eta hedatutako Bulego Judizial Berria) eta prestakuntza handiagoa eta motibazio altuagoa duten pertsonengan babestuta,
- justizia elektronikoko administrazioa sustatzeko, bulego judizialaren, bulego fiskalaren eta AMEIren baliabide teknologikoak eta materialak modu planifikatu eta eraginkorrean hornitu eta kudeatuz, eta espazio duin eta erosoak finkatzeko, eta
- **jarduera-lerro zehatzak** garatzeko, **kolektibo ahulenen mailan** (doako justizia, gazteen justizia, **indarkeriaren biktimak**, desagertuen ingurua), justizia errestituatiboan, eta gatazken konponketarako eta zuzenbide kolaboratiborako bestelako aukeretan.

Hori guztia, herritarrek, gainerako administrazioek eta eragile juridikoek nahiz bertako langileek lan hori guztia hobeto ezagutu eta aintzatets dezaten.

6. ildo estrategikoa. Justizia “giza ezer-ezei”



“Ahulenak irmotasunez babesteko” helburua jorratzen duen ildo honetan, genero-indarkeriarekin lotutako programa bat aurreikusten zen.

Era berean, Lan eta Justizia Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018-2021eko Planaren (oraintsu onartua bera) hiru helburuetako bat garatzea da Planaren asmoa.

I.3. Aurrekariak. Zergatik plan hau orain?

Nahiz eta Saila etengabe aritu den lanean EAIBen gaian legealdiaren hasieratik, badaude arrazoiak une honetan planifikazio hau egitea beharrezkoa izateko:

- Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko indarrean dago EAEko erakundearteko II. akordioa (2009ko otsaila).
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea aldatzeko legearen aurreproiektu berri bat izapidetzen ari da, eta, bertan, emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko II. kapituluaren idazkuntza berria sartuko litzateke. Une honetan, Gobernu Kontseiluan onartzeke dago, ondoren Legebiltzarrerara bidaltzeko.
- Estatu-itun berri bat dago genero-indarkeriarako (2017ko abendua).
- Hobetu beharra dago JA babesten duten eta EAIBen harreran eta jarraipenean laguntzen duten zerbitzuen arteko koordinazioa.
- Komeni da Epailtzarekiko eta Fiskaltzarekiko lankidetza eta JAko Letradunen Kidegoko ordezkariak areagotzea, biktima horiei ematen zaien zerbitzua hobetze aldera.
- Legebiltzarreko ekimen hauen ondorioz (guztiak ere aho batez onartuak) hartutako konpromisoak hainbat mailatan betetzen ari dira:

Referencia	Fecha	Materia
<u>IOM 11\11\03\00\00031</u>	2017-10-26	<i>Justizia Administrazioari eta indarkeria matxistei buruz</i>
<u>LBP 11\11\02\01\00283</u>	2017-11-29	<i>Emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegiei buruz</i>
<u>LBP 11\11\02\01\00550</u>	2019-03-21	<i>Indarkeria matxistak salatzen dituztenen justiziarako egiazko irispideari buruz</i>

Eta [2017ko azaroaren 29an sailburuak agerraldia egin zuen Lan eta Justizia Batzordearen aurrean.](#)

- EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2019ko martxoaren 29ko akordioa dago, Euskal Autonomia Erkidegoko genero-indarkeriako epaitegietako plan integralari buruzkoa.
- Abian jarri dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako genero-indarkeriaren aurkako koordinaziorako probintzia-batzordeak, kasuan kasuko probintzia-azitegien ekimenez.
- Lan eta Justizia Sailaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2018-2021eko Plana dago.

I.4. Plangintza honen helburuak

- EAEko justiziaren arloan EAIBen gaian egiten den jarduera aztertzea.
- Justiziako Sailburuordetzak (aurrerantzean, JSO) EAIBen arreta hobetzeko garatu beharreko esku-hartzea zein izan behar den zehaztea.
- Lehen aipatutako legebiltzar-ekimenen konpromisoak betearazi ahal izateko jarduerak garatzea.
- EAEko emakumeen gaineko indarkeriaren epaitegiei (EGIE) buruzko proposamen adostua eta bateragarria lantzea gainerako eragile juridikoekin.
- Esku-hartze horiek honako hauekin integratzea: misioarekin eta ikuspegiarekin, Justiziako Sailburuordetzaren Ekintza Planarekin eta Lan eta Justizia Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018-2021eko Planarekin.

I.5. Plana prestatzen parte hartu dutenak

Plan hau prestatzeko, bilerak egin dira Saileko zuzendaritza-taldearekin, JSOko zuzendaritza-zerbitzuekin, EAIBen gaineko zerbitzuekin (ABIUak, TPJak, BLZ, EIKZ, ZKEZ-GAKOA, DLJ eta FE), zerbitzu hauetakoren batzuk esleituta dituzten erakundeekin, Saileko Berdintasuneko teknikariarekin eta Emakunderekin. Gainera, "entzute-ariketa" egin da biktimen talde batekin.

Era berean, planeko ekintzen proposamen batzuekin lotuta, hain zuzen ere beraiei eragiten dieten gaietan, bilerak egin ziren EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko buruarekin, fiskal nagusiarekin eta gobernuko idazkariarekin.



2. Arau-esparrua

Nazioarteko eta Europako arauak

Emakumeen aurkako Diskriminazio mota oro Desagerrarazteko Konbentzioa. (CEDAW) Nazio Batuen Batzar Orokorrak 34/180 Ebazpenean onartua, 1979ko abenduaren 18an.

https://www.ohchr.org/Documents/ProfessionalInterest/cedaw_SP.pdf

Emakumeen aurkako indarkeria: 92-01-29 CEDAW. 19. zk.-ko gomendio orokorra.

https://tbinternet.ohchr.org/Treaties/CEDAW/Shared%20Documents/1_Global/INT_CEDAW_GEC_3731_S.pdf

Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria borrokatzeko eta prebenitzekoa, 2011ko maiatzaren 11n sinatua, Istanbulen.

<http://www.boe.es/boe/dias/2014/06/06/pdfs/BOE-A-2014-5947.pdf>

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaraua, 2012ko urriaren 25ekoa, gutxieneko arauak ezartzen dituen delituen biktimen eskubideen, laguntzaren eta babesaren gainean, eta Kontseiluaren 2001/220/JAI esparru-erabakia ordeztzen duena.

<http://www.boe.es/doue/2012/315/L00057-00073.pdf>

Estatu-mailako arauak eta akordioak

35/1995 Legea, abenduaren 11koa, **indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzekoa eta sorostekoa**

<http://www.boe.es/boe/dias/1995/12/12/pdfs/A35576-35581.pdf>

27/2003 Legea, uztailaren 31koa, **etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena.**

<http://www.boe.es/boe/dias/2003/08/01/pdfs/A29881-29883.pdf>

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, **Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa.**

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2004/BOE-A-2004-21760-consolidado.pdf>



3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, **Emakumeen eta Gizonen berdintasun eragingarrirakoa**.

<http://www.boe.es/boe/dias/2007/03/23/pdfs/A12611-12645.pdf>

12/2008 Legea, abenduaren 5koa, **Gizarte Zerbitzuei buruzkoa**.

<http://www.boe.es/boe/dias/2011/10/07/pdfs/BOE-A-2011-15726.pdf>

1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, **Zigor Kodeari** buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa **aldatzen** duena.

<http://www.boe.es/boe/dias/2015/03/31/pdfs/BOE-A-2015-3439.pdf>

7/2015 Lege Organikoa, uztailaren 21ekoa, **Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen** duena.

<https://www.boe.es/boe/dias/2015/07/22/pdfs/BOE-A-2015-8167.pdf>

5/2015 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, **Prozedura Kriminalaren Legea eta Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen dituen honako zuzentarau hauen transposizioa egiteko**: 2010eko urriaren 20ko 2010/64/EB Zuzentaraua, prozesu penaletako interpretazio- eta itzulpen-eskubideari buruzkoa; eta 2012ko maiatzaren 22ko 2012/13/EB Zuzentaraua, prozesu penaletako informazio-eskubideari buruzkoa.

<https://www.boe.es/boe/dias/2015/04/28/pdfs/BOE-A-2015-4605.pdf>

15/2015 Legea, uztailaren 2koa, **Borondatezko Jurisdikzioarena**.

<http://www.boe.es/boe/dias/2015/07/03/pdfs/BOE-A-2015-7391.pdf>

4/2015 Legea, apirilaren 27koa, **Delituaren Biktimaren Estatutuarena**.

<http://www.boe.es/boe/dias/2015/04/28/pdfs/BOE-A-2015-4606.pdf>

Estatu Ituna, genero-indarkeriaren aurka, 2017ko abendukoa

5/2018 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, **Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa erreformatzen duena: genero-indarkeriaren alorreko estatu-ituna aplikatzeko presako neurriei buruzkoa da** 6/1985 Lege Organikoa.

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2018-17988

95/2009 Errege Dekretua, otsailaren 6koa, **Justizia Administrazioari laguntzeko administrazio-erregistroen sistema** arautzen duena.

<http://www.boe.es/boe/dias/2009/02/07/pdfs/BOE-A-2009-2073.pdf>

1917/2008 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, **genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laneratze-programa** onartzen duena.

<http://www.boe.es/boe/dias/2008/12/10/pdfs/A49367-49373.pdf>



EAE mailako arauak eta akordioak

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa**.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2005/03/0500982a.pdf>

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzeko lege-aurreproiektua.

124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko **Familia Elkarguneak** arautzen dituen

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/08/0804661a.pdf>

148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, **etxeko eremuan tratatu txarren biktima diren emakumeen harrerarako baliabideak** arautzen dituen.

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2007/09/0705311a.pdf>

Erakundearteko II. Akordioa, etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobea egitekoa 2009-02-03

29/2011 Dekretua, martxoaren 1ekoa, **genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean dauden **koordinazio-mekanismoak** buruzkoa.

<https://www.euskadi.eus/r48-bopv2/es/bopv2/datos/2011/03/1101644a.pdf>

264/2011 Dekretua, abenduaren 13koa, **Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokia** sortzeko eta bere funtzionamendua eta osaera arautzeko dena.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2011/12/1106268e.pdf>

Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta **babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei** buruzkoa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2012/10/1204811e.pdf>

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana, 2018-06-19

153/2018 DEKRETUA, urriaren 30ekoa, **Doako Laguntza Juridikoari** buruzkoa



Gidak eta protokoloak

Gida praktikoa, 1/2004 Lege Organikoarena, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa (BJKN, 2016).

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_marco_juridico/es_def/adjuntos/guia_practica_ley_1

Genero-indarkeriaren aurrean judizialki esku hartzeko irizpideen gida (2013ko eguneraketa).

Genero-indarkeriaren biktimei aitorpena hartzeko jardunbide onen gida (BJKN 2018).

Adingabeen bisiten araubideari eta zaintzari buruzko **peritu-txosten psikologikoak** genero-indarkeriaren kasuetara egokituta egiteko jardunbide onen gida (Madrilgo Psikologoaren Elkargo Ofiziala, 2013).

Bikote-harremanetako emakumeen aurkako indarkeriaren arriskuari buruzko **auzitegi-ebaluazio psikologikorako** jardunbide onen gida (BEAI) (Madrilgo Psikologoaren Elkargo Ofiziala 2012).

Segurtasuneko Indar eta Kidegoen Jarduerarako eta Organo Judizialekiko Koordinaziorako protokoloa, etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimak babestekoa; Polizia Judizialaren Koordinazio Batzorde Nazionaleko Batzar Teknikoak onartua 2005eko ekainaren 28an.

Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidegoen eta Udaltzaingoko Kidegoen arteko Lankidetza eta Koordinaziorako protokoloa, etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimak babestekoa, 2006ko martxoaren 13koa.

Genero-indarkeriaren aurreko osasun-jarduerarako protokoloa komuna, Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluaren Osoko Bilkurak onartua 2006ko abenduan, eta 2012an berrikusia, eguneratua eta hedatua.

Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidegoen eta Abokatuen Jarduera eta Koordinaziorako protokoloa, Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoan arautuko genero-indarkeriaren gairako, Polizia Judizialaren Koordinaziorako Batzorde Nazionaleko Batzar Teknikoak onartua 2007ko uztailaren 3an.

Genero-indarkeriaren gaineko urruntze-zigorren eta -neurrien betearazpenaren gaineko jarraipena bitarteko telematikoen bidez egiteko sistemako jarduera-protokoloa, Justizia Ministerioaren, Barne Arazoetako Ministerioaren, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Estatuko Fiskaltza Orokorraren arteko akordio bidez sinatua 2013ko urriaren 11n

Genero-indarkeriaren gaineko urruntze-zigor eta neurrien jarraipena bitarteko telematikoen bidez egiteko sistemaren espetxe-erlorko jarduera-protokoloa, 2015eko urriaren 19an onartua Justizia Ministerioaren, Barne Arazoetako Ministerioaren, Osasun,



[Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren arteko akordio bidez, aurrekoa betearazteko asmoz, espetxeetan dauden pertsonen sarrera, irteera edo ateratzeen gaian.](#)

[7/2016 Jarraibidea, Segurtasuneko Estatu Idazkaritzarena; horren bidez, genero-indarkeriaren arrisku-mailaren polizia-baloraziorako \(1/2004 Lege Organikoa\) eta biktimen segurtasunaren kudeaketarako protokolo berria ezartzen da.](#)

[Genero-indarkeriaren arriskuaren premiazko balorazioa egiteko auzitegi-medikuntzako protokoloa, Justizia Ministerioarena, 2011ko urrikoa.](#)

[Bikote-harremanetako emakumeen aurkako indarkeriaren arriskuari buruzko auzitegi-balorazio psikologikorako jardunbide onen gida. Madrilgo Erkidegoa.](#)

[Genero-indarkeriaren kondenatuen gaineko kontrol-gailu elektronikoak. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.](#)

[Akordioa, Andaluziako Genero Indarkeriaren gaineko jarduera hobetzeko erakundearteko koordinazio eta lankidetzarako protokoloa onartzen duena.](#)

[Genero-indarkeriaren gaineko osasun-jarduerarako protokolo komuna. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia 2012.](#)

[Genero-indarkeriaren arriskuaren premiazko balorazioa egiteko auzitegi-medikuntzako protokoloa. Justizia Ministerioa.](#)

[Sexu-erasoen gaineko erakunde eskudunen jarduera koordinaturako protokoloa - Madrilgo Hiriburuko Esparru Judiziala.](#)

[Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren kasuetan emakumeen gaineko indarkeria-arriskuaren maila polizialki baloratzeko protokoloa. Barne Arazoetako Ministerioa.](#)

[Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidegoen eta Abokatuen Jarduera eta Koordinaziorako protokoloa, Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoan arautuko genero-indarkeriaren gairako.](#)

[Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko jurisdikzio penaleko eta zibileko aginduen arteko koordinaziorako protokoloa.](#)

[Segurtasuneko indar eta kidegoen jarduerarako eta organo judizialekiko koordinaziorako protokoloa, etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimen gaian: \(Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikora egokitua\)](#)

[Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Agindua ezartzeko protokoloa.](#)

[Babes-aginduaren eskari-eredua.](#)

3. Aurreikusitako lege-aldaketa, erakundearteko lankidetzak, legebiltzarraren ekimenak eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren proposamena

3.1. EAEen aurreikusitako lege-aldaketa

Gaur egun, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea aldatzeko legearen aurreproiektu berri bat izapidetzen ari da, eta, bertan, emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko II. kapituluaren idazkuntza berria sartuko litzateke, tartean aldaketa garrantzitsuak.

VII. kapitulu horren egitura honela geratuko litzateke, nahiz eta legebiltzarrean izapidetzean aldatu egin daitekeen:

1. atala. Xedapen orokorrak	50. artikulua	Xedapen orokorrak
2. atala. Ikerketa, sentsibilizazioa, prebentzioa eta prestakuntza	51. artikulua	Datuen ikerketa, erregistroa eta hedapena
	52. artikulua	Sentsibilizazioa eta prebentzioa
	53. artikulua	Prestakuntza
3. atala. Detekzioa, arreta, koordinazioa eta erreparazioa	54. artikulua	Xedapen orokorrak
	55. artikulua	Osasun-arreta
	56. artikulua	Informazio- eta arreta-zerbitzu orokorrak
	57. artikulua	Arreta espezializatuko zerbitzuak
	58. artikulua	Prestazio ekonomikoak
	59. artikulua	Etxebizitza, gizarteratzea eta laneratzea eta hezkuntza
	60. artikulua	Arreta poliziala eta justiziarako sarbidea
	61. artikulua	Erreparazioa jasotzeko eskubidea
	62. artikulua	Erakunde arteko koordinazioa

Eta 60. artikuluko bigarren eta hirugarren atalak, justiziarako sarbideari buruzkoak, honela geratuko lirateke:

2. *Autonomia Erkidegoko Administrazioak bermatu behar du Euskal Autonomia Erkidegoaren mendeko epaitegietako profesionalek lehenetasuneko eta kalitateko arreta eraginkorra ematen dietela biktimei eta egoera horretatik bizirik atera direnei; besteak beste, neurri hauen bidez:*

- a) *Biktimaren Arreta Zerbitzuak eta epaitegietako lantalde psikosozialak behar beste langile izatea eta gaituta egotea.*
- b) *Itxarote-denborak murriztea eta biktima eta bizirauleentzako segurtasun-neurriak hartzea epaitegian eta akusatutako ikertuarekin konfrontaziorik ez izatea; horretarako, lege honetan aurreikusitako inguruarekin eta teknologiarekin lotutako ekipamenduak ezarriko dira emakumeen kontrako indarkeriaren epaitegietan eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kasuak argitzen diren beste organo jurisdikzionaletan.*
- c) *Baliabide pertsonal eta materialak xedatzea Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegi eta auzitegietako balorazio integraleko unitateei, beren lana eraginkortasunez egin ahal izan dezaten, peritu-proba psikologikoak barne, erabilitako indarkeriaren existentzia eta larritasuna egiaztatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen direnean.*
- d) *Beharrezko diren bitartekoak egituratzea, bermatzeko biktimei jakinarazi egiten zaiela delitugilea espetxetik irten dela, hala aldi baterako nola behin betiko.*

3. *Autonomia Erkidegoko Administrazioak honako hauek bermatu behar ditu:*

- a) *Biktima eta bizirauleentzako lege-laguntza emateko guardia-txandak, bermatzeko eguneko 24 orduetan badagoela, gutxienez, guardiako letradun bat barruti judizial bakoitzean, emakumeen kontrako indarkeria matxistan espezializatua.*
- b) *Berehalako lege-laguntza espezializatua, bakarra eta integrala izateko eskubidea emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktima eta bizirauleentzat, hasierako prestakuntza eta nahitaezko prestakuntza jarraitua jaso duten letradunen eskutik. Horren barne sartuko da salaketa-ekintza baliatzea zigor-arloko prozesuetan, eta behin-behineko neurriak eskatzea banaketa-, deuseztasun- edo dibortzio- demanda zibilen aurretik, edo kautela-neurriena, izatezko bikoteen kasuan.*
- c) *Jarraipena egiteko eta kontu emateko bitarteko egokiak egotea.*



3.2. Erakundearteko eta justizia-administrazioa itunak.

3.2.1. Genero-indarkeriaren alorreko estatu-ituna (2017ko abendua)

Estatu-ituneko neurriak, Justizia Sailburuordetzaren lanean zuzenean eragiten dutenak edo eragin lezaketenak, aldaketa arauemaileekin lotutakoak kanpo, honako hauek dira:

NEURRIA		Inplikaturako agenteak	Administrazio eskuduna
GIGO zk.	Testua		
2. ARDATZA. ERAKUNDEEN ERANTZUNA HOBETZEA: KOORDINAZIOA. SAREKO LANA.			
2.2 Generikoa			
72	Erabakiak hartzean laguntzeko eta konpainia egiteko sistema ezartzea, emakumea babesik gabe geratzea saihesteko, eta gizarte-laguntza integralerako eskubidea bermatzea, 1/2004 Lege Organikoaren 19. artikuluan aitortutakoaren arabera.	OGZBM GIGO JM AEak	EAO AEak
74	Horren barruan sartuko dira babes-unitateak eta gizarte-zerbitzuetako, osasun-zerbitzuetako nahiz laguntza juridikoa emateko erakundeetako langileak, kasua bideratzen ari direnak, eta koordinazioan eta lankidetzan arituko dira Estatuko segurtasuneko indar eta kidegoekin eta emakumeen gaineko indarkeriako epaitegiekin, kasuan kasuko eremu geografikoan	OGZBM GIGO BGM AEak TE BJKN	EAO AEak TE
75	Babes-unitatearen eginkizunen artean honako hauek ezartzea, zerbitzuetan indibidualki garatutako jarduerak bateratuta eta koordinatuta : ... · Segurtasun-plana antolatzen eta arriskuaren balorazioa hobetzen lagunduko duten proposamenak egitea, biktimak erasotzailearen ustezko damuen aurrean jasan ditzakeen mehatxuen eta xaxatzeen aurrean alerta jarrita. · Konpainia egitea banaketa-prozesuetako salaketak jartzean eta genero-indarkeriaren delituaren zioz jarraitutako prozesu judizialean, bere erabakia indartze aldera.	OGZBM GIGO BGM AEak TE	EAO AEak TE
76	Administrazio publiko guztiek era koordinatuan ezkontza behartuen aurkako planak ezar ditzatela sustatzea.	OGZBM GIGO BGM JM AEak	EAO AEak



78	Erakundearteko koordinazioa eta lankidetzaren hobetzea. Jarduera-protokolo integralak ezartzea. Esku hartzeko protokolo berriak ezartzea, administrazio publikoen baitan dauden baliabide guztiak barne hartzen dituztenak. Horietan aurreikusitako jarraipen-batzordeak deitzea.	OGZBM GIGO AEak	EAO AEak
80	Gaiaren gaineko eskumena duten autonomia-erkidegoekin batera, biktimarentzako profesional erreferente bakarra dagoen aztertzea. Erreferente hori izatea biktimaren egoera eta beharrianak aztertu, baloratu eta artatuko dituen, bai eta behar dituen baliabideak eta zerbitzuak planifikatuko dituen ere. Profesional horrek Jarraipen Batzordeei emango die biktima bakoitzari buruzko informazioa..	OGZBM GIGO AEak	EAO AEak
81	Gaiaren gaineko eskumena duen autonomia-erkidego bakoitzean genero-indarkeriarako arreta integraleko sare bat bermatzea, biktima diren emakume eta adingabeen arretarako, Delituaren Biktimei Laguntzeko Bulegoekin koordinatuta.	JM OGZBM GIGO AEak	EAO AEak
2.4. Segurtasuna			
95	Informazioa komunikatu eta partekatze orduan aurrera egiteko plan estrategikoa ezartzea administrazio publikoen (espetxeak, organo judizialak, Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidegoak, osasun-zentroak, gizarte-zerbitzuak, arma-baimenen datu-baseak) datu-base informatikoen artean, Datuak Babesteko Legearekiko errespetuan oinarrituta. Bereziki aurrera egin behar da Genero Indarkeriaren kasuetako Jarraipen Integraleko Sistemaren (GenInd Sistema) eta Justizia Administrazioa babesteko Administrazio Erregistroen sistemaren (JABES) arteko eta espetxe-erakundeekiko koordinazioan	BGM JM AEak	EAO AEak
2.6. Justizia			
122	Bitarteko prozesu-eremuan (zigor-auzitegietan) espezializazioa indartzea, bertan artatzen baita kasu gehien.	JM	EAO
123	Indarkeriaren Auzitegien jurisdikzioa esparru judizial bira edo gehiagora zabaltzeko erabakiarekin jarraitzea, soilik dauden bitartekoak eta arreta kualitatiboki hobetzen laguntzen badute.	JM	EAO
124	Dauden bideak zabaltzea eta horien erabilera sustatzea , genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek eta profesionalak erakundeen edo justiziaren irregularitasun edo anomalia posibleen gainean kexak jartzeko erraztasunak izan ditzaten, horiek ikertze aldera, eta biktimari informazioa eman dakion espedienteen egoerari buruz, eta, kasua artxibatu bada, horretarako arrazoiari buruz, hala badagokio beharrezko neurriak ezarrita.	JM	EAO



127	Genero-indarkeriaren eta sexu-delituen gaineko berreziketarako programak. Emakumeen aurka egindako delituen gainean berrezteko programak ezartzea nazio osoan. Genero-ikuspegiaren txertatutako birgaitze-programa aski dagoela bermatzea. Zigor Kodearen 83.2. artikulua erreformatzea proposatu da, genero-indarkeriaren kasuetako eta sexu-askatasunaren delituetak berreziketa sartzeko, halako zigor-motetan berriz erortzen direnak asko direla kontuan hartuta. Probintzia-audientzietan prozesua koordinatzeko unitate edo zerbitzu komunak sortzeko aukera ahalbidetzea, espetxe-administrazioako bestelako neurriak eta zigorrak kudeatzeko zerbitzuekin koordinatuta. Espetxeko zigorra erkidegoaren onerako lanak egiteko eteten edo ordeztan bada, egindako delituarekin lotutako lan psikopedagogiko bat egin dadila ezartzea (Taseval –“Bide Segurtasuneko Tailerrak”- programaren antzekoa izan daiteke). Bermatzea erasotzaileekin lan egiten duten erakunde guztiek genero-ikuspegiaren gaineko prestakuntza egiaztatzen dutela. Eta berreziketako programetan erasotzailearen gaineko tratamenduaren eraginaren ebaluazio zorrotza egiten dela ziurtatzea.	JM BMG	EAO
3. ARDATZA. BIKTIMEI EMATEN ZAIEN ASISTENTZIA, LAGUNTZA ETA BABESA HOBETZEA.			
3.1. JUSTIZIA.			
133	Biktimizazio bikoitza saihesteko, lehentasuna ematea emakumeen gaineko indarkeriaren arloko epaitegiak eta epaitegi espezializatuak egokitzeari, biktima eta erasotzailea ez daitezen aurrez aurre egon bulegootan; horretarako, aitopenak errepikatu behar izatea saihesteko ikus-entzunezko bitartekoak jartzea eta kualifikatutako interpreteak edukitzea. Bulego horiek sexu-erasoen kasuak eta pertsonen salerosketak (sexu-esplotaziorako) lantzeko ere erabili ahalko dira	JM AEak	EAO AEak
134	Epaitegietan instalazio lagunkoia jartzeko neurri egokiak ezartzea (Gesell kamerak barne), biktima diren haurrei arreta emateko.	JM AEak	EAO AEak
135	Talde psikosozialei baliabide gehiago ematea, epaileek atzerapenik gabe eduki ditzaten txosten egokiak, epaitegietan kasuak metatu ez daitezen.	JM AEak	EAO AEak
136	Gehienez bi urteko epean, Auzitegiko Balioespen Integraleko Unitateak (ABIU) ezartzea. Gizarte-langileak eta psikologoak horien parte izan ahalko dira, eta, besteak beste, epaileei laguntza emango diete, arriskua baloratzeko.	JM AEak	EAO AEak
137	Protokolo judizialak berrikustea, epaitegiek Babes Aginduen Koordinazio Puntuei jakinaraz diezazkieten behin-behineko largespenen-autoak, absoluzioko epaiak, eta genero-indarkeriaren kasuetako neurriak aldatzeko epaiak. Organismo horiek arduratuko dira autonomia-erkidegoetako, hiri autonomoetako eta udaleko gizarte-zerbitzuei ebazpen judizial hauen berri emateaz.	JM AEak TE BJKN	EAO AEak



140	Biktimari laguntza eta aholkularitza (laguntza judizial pertsonalizatua) emateko plana diseinatzea, administrazioak inplikaturik. Bertan, biktimei eta beren seme-alabei eman beharreko laguntza aurreikusiko da, salaketa jarri baino lehen eta prozesuan zehar, eta, horrez gain, inplikaturik agente guztientzako nahitaezko prestakuntza-neurriak jaso beharko dira. Horretarako, genero-indarkeriaren gaineko eskumena duten epaitegien eremuko protokoloa berrikusiko da, genero-indarkeriaren biktima diren emakumei ibilbideari eta prozedurari buruzko informazioa emate aldera, ibilbide judiziala ondo ezagutzen dutela bermatuz, salaketa jartzen den unetik hasi eta prozesua amaitzen den arte.	JM OGZBM GIGO BGM AEak	EAO AEak
141	Emakume biktimei eman beharreko laguntza juridikoa indartzea , prozesu judizialaren aurretik eta prozesu osoan zehar, bai eta haren ostean ere, kondena betearazteko fasean, eta, horretarako, letradun gehiago jartzea ofiziozko txanda espezializatueta eta horien prestakuntza espezializatua hobetzea.	JM AEak	EAO AEak
146	Epaitegian egindako agerraldien ziozko salaketak eta lesioen parteak bidaltzea kasuan kasuko lurraldeko Segurtasuneko Indar eta Kidegoetara, GenInd-en jasotzeko. Prozedura Kriminalaren Legea erreformatzea, komunikazio hori ezartzeko organo judizialean; hartara, erakundeen artean informazioa trukatzeko erraztuko litzateke, eta biktimen eta beren seme-alaben segurtasun integral fisiko eta psikikoa bermatuko lirateke. Izan ere, egindako arrisku-balorazio berrien zioz biktimaren egoera pertsonalarekin bat datozen polizia-neurriak hartuko lirateke. Epaitegietan zuzenean jasotzen diren lesioen parte guztietan ere aplikatu behar da hori. Hala, biktimaren segurtasunerako beharrezko informazio guztia edukiko du sistemak.	JM BGM OGZBM GIGO AEak	EAO AEak
148	Delituaren Biktimei Laguntzeko Bulegoak sustatzea. Sarbidea edo leihatila bakarra ezartzea, biktimei arreta emateko edo zerbitzu espezializatueta bideratzeko. Biktimei Laguntzeko Bulegoak sustatzea, genero-indarkeriaren biktimen eskubideak zaintzeko, bai eta horien koordinazioa sustatzea ere, oraintsu sortutako Biktimen Aholku Kontseiluaren bidez. Kontseilu horren osaera, zehazki, berrikusi egin behar da. Biktimei Laguntzeko Bulegoetan adingabeentzako protokolo zehatza ezartzea.	MJUS CCAA	EAO AEak
150	Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegien lan-karga ebaluatzea, bai eta langile-taldea areagotzeko edo baliabideak birbanatzeko beharrianak aztertzea ere.	JM BJKN	EAO
3.2 Segurtasuna			
156	Zaintza elektronikoko tresnen sistema teknikoa hobetzea, Justizia Ministerioa eta Barne Arazoetako Ministerioa inplikaturik, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari dei egitea, sistema horren erabilera sustatu dezan gutxienez "arrisku ertaineko" kasuetan.	OGZBM GIGO BGM JM BJKN Fiskaltza	EAO



157	Biktimak erasotzailearekin espazioa partekatzen duen egoeretan nola jardun ezartzeko protokoloa prestatzea (lantokiak, ikastetxea...).	OGZBM GIGO JM BGM	EAO
3.3. Administrazioa			
166	Autonomia-erkidegoekin batera, biktimei arreta emateko baliabide eta zerbitzuen mapaketa egitea.	OGZBM GIGO AEak	EAO AEak
167	Autonomia-erkidegoekin eta gainerako administrazioekin lan egitea, biktimen eskubideak jasoko dituen agiri komun bat prestatzeko orduan, zerbitzu orokorrak eta zehatzak kontuan hartuta, eta eskubide horiek zabaltzeko, ikusgarri egiteko eta arreta ematen zaion emakumeari eskubide horien kopia bat entregatzeko betebeharra ere jasota. Zeregin horretan herritarren erakundeak eta emakumeen taldeak inplikatzeko.	OGZBM GIGO AEak	EAO AEak
169	Autonomia-erkidegoekin batera, bizirik irten diren emakumeek prozesuan zehar jaso duten tratuari buruzko ebaluazio-inkestak sustatzea.	OGZBM GIGO AEak	EAO AEak
3.7. Dibertsitate funtzionala /ezintasuna			
195	Dibertsitate funtzionala /ezintasuna duen emakumearen aurka baliatutako indarkeria-kasuetan indarkeria matxistaren protokoloak aktibatzea, gainerako emakumeentzat aktibatzen diren moduan, zuzenean gizarte-zerbitzuetara bideratu gabe.	BGM JM	EAO
3.8. 1/2004 Lege Organikoaren eskubideak eta prestazioak aplikatzea "hirugarren pertsonen" bidezko indarkeria-kasuetan.			
200	Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan jasotako eskubide ekonomikoak, Gizarte Segurantzaren prestazioak, lan-eskubideak eta babes psikologikoak zabaltzea indarkeria bikarioa edo "hirugarren pertsonen bidezko" indarkeria jasan duten pertsonen, hau da, erasotzaile batek emakume baten aurka baliatu dezakeen kalterik okerrera (seme-alabak mindu edo hiltzea) jasan dutenei.	OGZBM GIGO BGM JM AEak	EAO
201	Prestakuntza egokia ematea informazio-zerbitzuetako, larrialdietako, osasun-zerbitzuetako, polizia-zerbitzuetako eta zerbitzu juridikoetako profesionalei, informazio guztia egokitua, irisgarria eta inklusiboa izan dadin, bai eta tratua duina eta errespetuzkoa izan dadin eta dibertsitate funtzionala /ezintasuna duen emakumearen intimitatea babestu dadin ere.	OGZBM EBPZN BGM JM AEak	EAO AEak
4. ARDATZA. ADINGABEEI LAGUNTZA ETA BABES GEHIAGO EMATEA.			
204	Adingabeen egoerari buruzko azterketak egitea (zaintza, bisiten araubidea, aita erasotzailearekiko harremanak...).	OGZBM FHZN JM	EAO



211	Eragile juridikoen prestakuntza espezifikoa hobetzea, adingabeei arreta emateko.	JM	EAO
212	Sustatzea Familia Elkargune eskusiboak eta genero-indarkeriaren kasuak artatzeko espezializatuak martxan jar daitezela, eta, halakorik ezean, protokolo zehatzak prestatu eta aplikatzea.	OGZB GIGO FHZN AEak	AEak
219	Ezartzea adingabeen aitorpenak bideograbatzea nahitaezkoa dela biktimizazio bikoitza saihesteko.	JM	EAO
222	Autonomia-erkidegoekin lan egitea, genero-indarkeriaren kasuetan adingabe erasotzaileak errehabilitatzeko orduan genero-ikuspegia txertatu dadin.	JM AEak	EAO AEak
5. ARDATZA. LAGUNTZA-ERANTZUNIK ONENA BERMATUKO DUEN PRESTAKUNTZA SUSTATZEA.			
225	Justizia Administrazioako profesionalek eta Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidegoek genero-indarkeriaren prebentzioaren eta salerosketaren gainean jasotzen duten prestakuntza espezializatua hedatzea , eta eduki horiek familia eta haurren epaileen artera eta genero-indarkeriaren gainean espezializatutako epaitegietara ere eramatea. Prestakuntza zeharkako, egonkor, diziplina anitzeko eta ebaluagarria aurreikusten duten planetan egituratzea.	JM BGM	EAO
227	Espainiako Abokatutza Kontseilu Nagusiari proposatzea bere elkargokide guztientzat eta Espainiako Abokatuen Elkargo guztietan sustatu dezala diskriminazioaren aurkako zuzenbidean kalitatezko prestakuntza homogeneizatu dadila, genero-ikuspegia eta zeharkakotasuna barne hartuta .	JM BJKN Abokatuen elkargoak	EAO
229	Genero-indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten profesionalei prestakuntza ematea genero-indarkeriaren biktima diren emakume transexual edo transgeneroen beharrian zehatzen gainean. Genero-indarkeriari buruzko protokoloetan epigrafe zehatz bat jasotzea, arreta emateko emakume transexual edo transgeneroaren aurkako erasoan aurrean.	OGZBM GIGO EABI AEak GKE	EAO AEak
231	Genero-indarkeriaren gaineko espezializazioa sustatzea, ebaluatzeko moduan, talde psikosozialetan , Familiaren Zuzenbidearen eta genero-indarkeriaren gaineko esku-hartzeko.	JM AEak	EAO AEak
233	Autonomia-erkidegoekin batera, gutxiengo etnikoetako emakumeentzako arreta espezializatua sustatzea . Laguntza eta bitartekotzako neurriak garatzea, emakumeek baliabide espezializatuak profesionalekin duten elkarriketa eta ulermena errazteko. Emakumeen ahalduntzea eta eskuragarri dauden baliabideen gaineko informazioa indartzea. Profesionalen artean sentsibilizazioa piztea, arretarik egokiena eman diezaieten.	OGZBM GIGO AEak	EAO AEak
234	Genero-indarkerian inplikaturako eragile juridikoei, eremu honetako espezializazioa edukitzeaz gain, immigrazioaren zehaztasunei buruzko prestakuntza eduki dezatela sustatzea.	JM	EAO



6. ARDATZA. JARRAIPEN ESTATISTIKOA			
243	Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eskatzea unitate espezifiko bat era dezala emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietatik datozen datuak ebaluatzeko eta epaitegi ez zehatzetan gai honekin lotutako datuak ebaluatzeko.	JM BJKN	EAO
245	Biktimei buruzko estatistikak homogeneizatzea (Hainbat ministerio: Justizia, Barne Arazoak, Osasuna, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasuna). Justizia Ministerioak eta Barne Arazoetako Ministerioak zigor-motak lantzen dituzte; Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioek, bestetik, kontzeptu soziologikoekin lotutako irizpide juridikoak erabiltzen dituzte... Irizpide berberak aplikatzen dituen datu-base bat ezartzea.	OGZBM GIGO BGM Fiskaltza BJKN	EAO
7. ARDATZA. GOMENDIOAK EMATEA AUTONOMIA-ERKIDEGOEI, TOKI-ERAKUNDEEI ETA BESTE INSTITUZIO BATZUEI.			
250	Estatistika Judizialeko Batzorde Nazionalarekin adostea genero-indarkeriaren gaineko aldizkari estatistiko judizialak aldatu daitezela (erantzun judizialaren jarraipena egiteko adierazleak emakumeen aurkako indarkeriaren modu guztietara hedatu daitezen).	JM BJKN	EAO
8. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO BESTE INDARKERIA MOTA BATZUK AGERIAN JARTZEA ETA INDARKERIA HORIEK AZTERGAI HARTZEA.			
264	Salerosketaren delitua ofizioz jazar dadila indartzea, eta esplotatu diren pertsonak gizartean babesteko eta integralki errekupeatzeko zerbitzuak eta programak martxan jartzea.	JM BGM AEak	EAO AEak
274	Autonomia-erkidegoekin aztertzea erkidego bakoitzean salerosketaren biktimak babesteko ofiziozko txanda espezializatuak ezartzeko aukera.	JM AEak	EAO AEak



3.2.2. Erakundearteko II. Akordioa, etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko (2009ko otsaila)

2009ko otsailaren 3an, erakundearteko II. akordioa sinatu zen, 2001eko erakundearteko lehen akordioaren edukiak inguruabar berrietara egokitzeko —hau da, batez ere, legezko aldaketen ondorioz eta harrezkero jazo diren beste gertakari batzuen ondorioz sortutako inguruabarretara egokitzeko—. Horrez gain, protokoloak, lankidetzak-akordioak eta hartutako beste era bateko tresna juridikoak osatzea ere bazen II. akordio horren helburua.

II. akordioan, zehazki, erakunde sinatzaileek hartutako konpromisoak eta esku hartzeko eremu bakoitzerako jarduera-protokoloak jasotzen dira: osasuna, polizia, justizia, gizartea, hezkuntza eta Abokatuen Elkargoak. Halaber, esku hartzeko eremuen arabera garatu, zehaztu eta egokitu ahalko den esparru-akordiotzat planteatu da.

Erakunde sinatzaileak honako hauek dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Foru-aldundiak.
- Eudel/Euskadiko Udalen Elkarteak.
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia.
- Legelarien Euskal Kontseilua.
- Euskadiko Sendagileen Kontseilua.

Urtero, **Jarraipen eta Ebaluazio Txostena** onartzen du Erakundearteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak. Han jasotzen ditu, alde batetik, erakunde bakoitzak akordioa aplikatu bitartean garatzen dituen ekintzak, eta, bestetik, erakunde horiek akordioan aurreikusitako jarduera-protokoloaren betearazpen-mailaren gainean egiten duten balorazioa. Jarraipen Batzordeak EMAKUNDE du buru, eta Justiziako sailburuordeak parte hartzen du.

3.3. Legebiltzarraren ekimenak

Legealdi honetan, Eusko Legebiltzarrean, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako proposamen eta legebiltzarraren ekimen hauek sartu dira:

<u>IOM 11\11\03\00\00031</u>	2017-10-26	Justizia Administrazioari eta indarkeria matxistei buruz
Eusko Legebiltzarrak Lan eta Justizia Sailari eskatu dio: <i>Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren nahiz genero-ikuspegiaren printzipioa Lan eta Justizia Saileko Justizia Sailburuordetzaren politiketan modu eraginkor eta benetakoan aplikatzen jarrai dezala.</i> <i>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 51.2. artikuluan ezartzen duen gisan, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren gainean dauden baliabide eta programen eraginkortasuna eta irismena aldi-aldian ebaluatzen jarrai dezala, hala bere bitartekoen bidez, nola beste erakunde batzuekin lankidetzan.</i> <i>Egindako ebaluazioen ziozko gomendioak ezartzeko plana presta dezala, Justizia Administrazioak berariaz hobetu ditzan baliabide judizialean egindako ebaluazioan beharrezkotzat jo diren alderdiak, justiziako sarbidea bermatu eta hobetu diezaiei indarkeria matxisten biktima diren emakume, haur eta nerabeei, horiek bigarren biktimizaziorik jasan ez dezaten..</i>		
<u>LBP 11\11\02\01\00283</u>	2017-11-29	Emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegiei buruz
Eusko Legebiltzarrak Lan eta Justizia Sailari eskatu dio: <i>Justizia eskuratzeko bidea berma dezala, biktimizazio bikoitzik ez dagoela ziurtatuta, nazioarteko arauetan ezarritakoari jarraikiz, indarkeria matxisten biktima diren emakume guztien artean, Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzko Lege Organikoan babestutako gertaerak salatzen dituzten emakumeen artean eta beste arau batzuetan babestutako gertaerak (besteak beste sexu-askatasunaren aurkako delituak) salatzen dituzten emakumeen artean.</i>		

2. Lan eta Justizia Sailaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren artean eratutako lantaldearen barruan, eraikin judizialei buruz aztertzen jarrai dezala:
 - 2.1. Justizia-jauregien barrualdean edo kanpoan, hala badagokio, **espazioak gaitzea** emakume biktimekin epaitegira doazen **adingabeentzat**, edo epaitegira doazen adingabeei arreta egokia bermatzeko neurriak hartzea, laguntza hori beharrezko gutxienekoa izan dadin, eta, beharrezkoa bada, adingabeekin lotutako jarduera-protokoloak aldatuta.
 - 2.2. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat **espazio egokiak gaitzea**, hau da, emakume horiek kasuan kasuko letradunarekin elkarriketa pribatua egiteko baldintzak betetzen dituztenak, konfidentzialtasuna zainduta.
 - 2.3. **Neurri egokiak** ezartzea salatutako gertaeren **ustezko egileak** epaitegietan dauden bitartean **etengabe kontrolatuta** egon daitezen, beren eskubideak urratu gabe.
 - 2.4. **Prozesu judizialean**, eremu guztietan, **esku hartzeko irizpideak** ezartzea, genero-indarkeriaren biktimak epaitegitik pasatzen diren bitartean garatzen diren jarduerak **errazte eta estandarizatzeko** aldera.
3. Genero-indarkeriaren epaitegi guztiei beharrezko **baliabide materialak** ematea, horren barruan sartzen direlarik **ura** eta **elikagai-makinak**.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiarekin lankidetzan eta epaileen batzekin, eragile juridikoekin, funtzionarioekin, sindikatuen ordezkariekin, eta biktimen elkarteekin adostuta, sustatzea **Bilbon emakumeen aurkako indarkeriaren bi epaitegi gehiago sor** daitezela, bermatu ahal izateko genero-indarkeriaren biktima diren emakume eta adingabeei arreta eta zerbitzu hobea ematen zaiela, Justiziako Sektore Konferentzian, Barakaldoko eta Getxoko epaitegien ordezkariak.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiarekin, epaile dekanoeekin eta langileen batzekin lankidetzan, **lanaldi-luzapenak ezabatzea erraztuko duen egutegi bat egiteko aukera, zaintzak ezartzeko aukera, funtzionarioen mugikortasuna saihesteko neurriak, espezializazio-neurriak eta soldata-plus** motaren bat ezartzeko aukera azter daitezela, eta, horretarako, **Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko den txostena egin dadila**.
6. Proposamen horiek gauzatu ahal izateko **aurrekontu-partidak** bideratzen jarraitzea.
7. Euskal Autonomia Erkidegoko abokatuen **elkargoei gomendatzea, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei lege-laguntza emateko ofiziozko txanda berrikus dezatela** eta, beharrezkoa bada, egindako azterketaren ostean, jarduera hori garatu behar duten pertsonen kopurua areagotu dezatela.



LBP 11\11\02\01\00550

2019-03-21

Indarkeria matxistak salatzen dituztenen justiziarako egiazko irispideari buruz

Eusko Legebiltzarrak Lan eta Justizia Sailari eskatu dio:

1. **Udaltzaingoa eta Ertzaintza Justizia Administrazioarekin koordinazioan aritzeko protokoloak berrikustea**, indarkeria matxista jorratzean administrazioen jarduerak hobetu eta irizpideak bateratzeko asmoz. Halaxe egiaztatuko da ukitutako agenteekin.
2. **2019an eta 2020an**, indarkeria matxisten eta genero-indarkeriaren gaineko **berariazko prestakuntza ematea** epaitegietan lan egiten duten langile guztiei, hau da, epaileei, fiskalei, auzitegiko medikuei, abokatuei, poliziei, psikologoei, gizarte-langileei, justiziako langileei eta beste batzuei, biktimizazio bikoitzak eta justizia eskuratzeko beste eragozpen batzuk saiheste aldera.
3. Bermatzea **interpreteen zerbitzua ituntzeko hurrengo kontratazio-agirietan jasota egongo dela** generoaren, indarkeria matxisten eta kulturartekotasunaren gaineko prestakuntza eta **espezializazioa** eduki beharra dagoela, genero-indarkeriaren epaitegietan zerbitzua emateko.
4. **Bere menpe dauden eta indarkeria matxisten biktimei arreta ematen dieten zerbitzu guztiei beharrezko tresna guztiak** ematea, informazioa egokitua, irigarria, eta inklusiboa izan dadin eta dibertsitate funtzionala duten emakumeen intimitatea babes dadin.
5. **Indarkeriaren biktimei arreta emateko instalazioen eta epaitegi mistoen ebaluazioa egitea 2019an**, eta txostena egindakoan, **beharrezko neurriak hartzea** biktimizazio bikoitzik egon ez dadin eta biktima diren emakume, haur eta nerabe guztiei kalitatezko arreta eman dakien.
6. **Biktimei laguntzeko zerbitzuko bulegoen azterketa-ebaluazioa** egitea, kontuan hartuta, besteak beste, bulego hauek epaitegietatik hurbil jartzearen egokitasuna eta zerbitzu honek beti indarkeria matxisten gaineko espezializazioa jaso duten gizarte-langileak eta psikologoak edukitzeko beharrezana.
7. **Osoko laguntza-zerbitzua** ezartzea Biktimei Laguntzeko Zerbitzuaren dimentsio berriak antolatzean, iragarritako aurreikuspenen arabera.
8. **Erakundearteko koordinazio handiagoa eta sareko lana** lortzeko lanean jarraitzea, indarkeria matxistaren biktima diren emakume eta adingabeei osoko arreta bermatzeko eta biktimizazio bikoitza saihesteko beharrezko neurri guztiak areagotu eta indartze aldera.
9. Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen gaineko indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen **biktima diren pertsonen berehalako laguntza juridikoa emateko hitzarmena berrikusi eta eguneratzeko prozesua** amaitzea, hiru lurralde historikoetako abokatuen elkargoekin.

10. 2017ko urriaren 26an eztabaidatutako mozioaz geroztik hartutako akordioak betearazteko lanean jarraitzea eta **aho batez erabaki zen justiziarako sarbidea hobetzeko plana** Lan eta Justizia Batzordean aurkeztea, gehienez sei hilabeteko epean.

11. 2017ko azaroaren 29an Lan eta Justizia Batzordean lortutako akordioak betearazteko lanean jarraitzea, emakumeen gaineko indarkeriaren epaitegiei buruzko ekimena kontuan hartuta

3.4. Arartekoaren ebazpena

2019ko abuztuaren 27an, Sail honetan sartu zen Arartekoren ebazpena, 434/2018/QC kexarekin lotutakoa. Bertan, berariaz salatzen ziren Vitoria-Gasteizko Emakumeen gaineko Indarkeriaren Epaitegi berrian egindako lekualdaketetan biktimen segurtasunean egondako arazoak

Aipatu ebazpenaren ondorioek Sailak egindako jarduera bermatzen zuten, honela:

Lehenengoa. - *Testu osoan adierazi den gisan, Arartekoaren etengabeko kezka da administrazio publikoek genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen dieten arreta, indarkeria horrek gure gizartean eragiten duen gaitza kontuan hartuta. Euskal Autonomia Erkidegoan, administrazio publikoek ahalegin handia egin dute politika publikoak koordinatzeko, kolektibo honi ematen zaion arreta hobetze aldera. Pausurik garrantzitsuenetakoa da, hain zuzen ere, etxeko tratatu txarren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeen harrera hobetzeko erakundearteko II. Akordioa, 2009ko otsailaren 3koa, Emakundek sustatutakoa. Bai Lan eta Justizia Saila, bai Arartekoa akordio horren barruan sartzen dira, eta Jarraipen Batzordean eta haren Erakundearteko Talde Teknikoaren bileretan parte hartzen dute. Horrenbestez, justiziaren eremuan genero-indarkeriaren biktima diren pertsonen arreta hobetzeko erakundearteko koordinazioa malgua eta etengabea da bi erakundeen artean, kasu honetan ikusi den bezala.*

Lehenengo ondorio gisa, beraz, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak Arartekoarekin duen lankidetzaz azpimarratu behar da, etengabe ari baitira bilatzen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko bideak, etorkizunean adostasuna lortzeko eredu gisa. Era berean, prozesu honetan esku hartu duten pertsona guztien proposamenak eta gomendioak kontuan hartzen saiatu da Saila, elkarrizketarako jarrera ireki eta oparoa erakutsiz. Arartekoa naizen aldetik, gomendatzen dut prozesu honetan esku hartu duten alderdiak kontuan har daitezela Emakumeen Indarkeriari buruzko beste

epaitegi batzuetan egingo diren etorkizuneko lanetan —kasu honetan egin den bezala— eta, batez ere, hasiera uneetan, beste eragile juridiko batzuk kontsultatu baino lehen, Biktimei Laguntzeko Zerbitzura (BLZ) jo dadila, Lan eta Justizia Saileko genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko zerbitzu publiko espezializatua baita.

Bigarrena.- *Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak lan handia egin behar izan du proiektu berri bat egiteko, 2018ko otsailean amaitutako lanak aldatzeko, eta, hala, prozesu honetan esku hartu dutenek Arartekoaren bidez egin dituzten proposamenei erantzun ahal izateko. Izan ere, lanak ez dira behin betikotzat jo, harik eta bi erakundeok adostu dugun arte biktimaren eta arau-hauslearen arteko harremana saihesteko eskubidea bermatzen dutela, halaxe jasotzen baitu delitu-biktimen Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legeak 20. artikuluan, baldin eta obra horiek Sailak bere erantzunean adierazi digun bezala garatzen badira.*

Hirugarrena. - *Kasu honetan adostasuna bilatzeko eredia eta Gasteizko Emakumeen gaineko Indarkeriaren Epaitegirako obra-proiektu berriko eskubideen bermearen eta segurtasunaren parametroak urrats oso garrantzitsuak dira Euskal Autonomia Erkidegoan Emakumeen gaineko Indarkeriaren Epaitegiaren eredia ezartzeko, justiziako langileen eta eragile juridikoen nahiz biktimen eskubideak bermatuta. Hala, espazio fisikoek nabarmen lagun dezakete genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen biktimizazio bikoitza saihesten, eta, era berean, akusatuei dagozkien eskubide guztiak zaintzen, gure antolamendu juridiko bermatzailearen arabera.*

Azkenik, Lan eta Justizia Sailari dei egiten diot Euskal Autonomia Erkidegoan Justizia Administrazioan genero-indarkeriaren biktimei eman beharreko arreta hobetzeko etengabeko ebaluazioarekin jarrai dezan, eta, horretarako, Arartekoaren lankidetzaz zintzo eta bermatzailea izango du une oro, orain arte eduki duen bezala.

3.5. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2019ko martxoaren 29ko akordioa. EAEko genero-indarkeriaren epaitegiatarako plan integrala

Akordioaren edukiaren eskema:

LH	GAUR EGUNGO EGOERA	PROPOSAMENA	JSO-REN ETA SEGURTASUNAREN INPLIKAZIOAK
BIZKAIA	- EGIE 1 Bilbo (1184 gai penal eta 90 gai zibil) - EGIE 2 Bilbo (1041 gai penal eta 95 gai zibil) - EGIE Barakaldo (919 gai penal eta 79 gai zibil) - Getxo, Epaitegia 1. II 4. zk. (383 gai penal eta 19 gai zibil) - Durango, Epaitegia 1. II 4. zk. (258 gai penal eta 22 gai zibil) - Gernika, Epaitegia 1. II 3. zk. (220 gai penal eta 8 gai zibil) - Balmaseda, Epaitegia 1. II 1. zk. (85 gai penal eta 6 gai zibil)	- Hirugarren EGIE sortzea Bilbon. - Bilbora lekualdatzea Barakaldon dagoen emakumeen gaineko indarkeriaren epaitegia. - Bizkaiko lurralde historikoa jorratuko duen barruti judiziala eratzea, espezializatutako lau epaitegien eskumen objektiboa bertara hedatuta. - Lau epaitegi espezializatuatarako etengabeko zaintza-zerbitzua ezartzea. - Lau epaitegiatarako egoitza zehatza gaitzea, zerbitzu guztiak barne: fiskaltza, ABIUak, BLZ eta TPJ.	- Epaitegi berriko lanpostuak sortzea. - Barakaldoko epaitegiko lanpostuak lekualdatzea. - Bilboko 6.eneko zigor-arloa indartzea (+% 33). - Barakaldoko egungo errefortzuak birplanteatzea (-% 25). - Espazioa gaitzea. - Babes-zerbitzuak elkarrekin emateko aukera ahalbidetzea. - Zaintzako doako laguntza juridikoaren beharrianak finantzatzea. - Biktimen lekualdaketa bermatzea (segurtasuna).
GIPUZKOA	- Donostia, 1 EGIE (928 gai penal eta 88 gai zibil) - Irun, Epaitegia 1. II 4. zk. (220 gai penal eta 8 gai zibil) - Bergara, Epaitegia 1. II 2. zk. (146 gai penal eta 31 gai zibil) - Tolosa, Epaitegia 1. II 1. zk. (171 gai penal eta 9 gai zibil) - Azpeitia, Epaitegia 1. II 1. zk. (122 gai penal eta 17 gai zibil) - Eibar, Epaitegia 1. II 2. zk. (120 gai penal eta 6 gai zibil)	- Egoitza Donostian duen bigarren EGIE bat sortzea. - Gipuzkoako lurralde historikoa jorratuko duen barruti judiziala eratzea, espezializatutako bi epaitegien eskumen objektiboa bertara hedatuta. - Bi epaitegiatarako egoitza zehatza gaitzea, zerbitzu guztiak barne: fiskaltza, ABIUak, BLZ eta TPJ.. - Egoitza Eibarren duen bigarren EGIE bat sortzea. - Bi barruti judizial sortzea. Bat Donostia - San Sebastián, Irun eta Tolosako barruti judizialeko; eta bestea Eibar, Bergara eta Azpeitirako. Hori guztia, epaitegi espezializatuatarako bakoitzaren eskumen objektiboa dagokion barruti judizialera hedatuta. - Bi epaitegiatarako bi egoitza zehatz gaitzea, zerbitzu guztiak barne: fiskaltza, ABIUak, BLZ eta TPJ.	- Epaitegi berriko lanpostuak sortzea. - Espazioa gaitzea. - Babes-zerbitzuak elkarrekin emateko aukera ahalbidetzea. - Biktimen lekualdaketa bermatzea (segurtasuna). - Epaitegi berriko lanpostuak sortzea. - Espazioak gaitzea (2). - Babes-zerbitzuak elkarrekin emateko aukera ahalbidetzea. - Biktimen lekualdaketa bermatzea (segurtasuna).



ARABA	- Vitoria-Gasteiz EGIE (952 gai penal eta 133 gai zibil) - Amurrio, Epaitegia 1. II 1. zk. (94 gai penal eta 7 gai zibil)	- Arabako lurralde historikoa jorratuko duen barruti judiziala eratzea, Vitoria-Gasteizko Emakumeen gaineko Indarkeriaren Epaitegiren eskumen objektiboa Amurrioko barruti judizialera hedatuta. - Vitoria-Gasteizko epaitegirako egoitza zehatza gaitzea, zerbitzu guztiak barne: fiskaltza, ABIUak, BLZ eta TPJ.	- Epaitegi berriko lanpostuak sortzea. - Espazioa gaitzea. - Babes-zerbitzuak elkarrekin emateko aukera ahalbidetzea. - Biktimen lekualdaketa bermatzea (segurtasuna).
--------------	--	---	---

3.6. Genero-indarkeriaren aurkako koordinaziorako probintzia-batzordeak

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorrak, Estatu-itunaren aginduari erantzunez, 2018ko uztailaren 5eko bileran, Emakumeen gaineko Indarkeriaren Koordinaziorako Probintzia Batzordeak sortzeko jarduera-protokoloaren proposamena onartu zuen, honakoa xede:

- genero-indarkeriaren biktimei erakundeetatik ematen zaien erantzuna hobetzea, eta
- genero-indarkeriaren aurkako borrokan agintari eta erakunde arduradunen arteko koordinazioa sustatzea,

horien barruan honako gaiei lehentasuna emateko:

- Koordinazio Mahaiko kideen sektore bakoitzean hautemandako akatsak eta horiek konpontzeko moduak.
- Sektore bakoitzeko arduradunek aurkeztzen edo proposatzen dituzten berrikuntzak, genero-indarkeriaren aurkako borroka hobetzeko.
- Emandako babes-aginduen kopuruak eta horien azterketa.
- Biktimen arrisku-egoeren balorazioa eta atxikitako polizia-unitateen jarduera. Biktimen arriskua hautemateko neurri zehatzak antolatzeak aukera aztertuko da, baldin eta:
 - Beren bikotekideari jakinarazi badiote banatzeko erabakia, eta hark genero-indarkeriaren deliturik gauzatu badu.
 - Biktimak berariaz eskatzen badu babes-neurriren bat, erasotzaileari beldurra edo ikara diola alegatuta.
- Polizia-etxeetan biktimei lege-laguntza emateko neurriak.
- Tratu txarren biktimek aurkeztutako kexak, arretan praxi txarra egon delako. Horretarako, erakunde bakoitzean biktimen kexetarako zerbitzu bat egon liteke, arreta txarragatik, erakundeetako bakoitzean, sektore bakoitzean autokontrolerako neurriak har daitezen, biktimei laguntza txarrik ez emateko edo halakoak prebenitzeko.

7. Autonomia-erkidego eskudunei edo Justizia Ministerioari jakinaraztea gune bakoitzean hobetu beharreko aurrekontu-beharrianak.

Batzorde horiek, 2018ko abenduaren eta 2019ko urtarrilaren artean eratu zirenak, gaur egun lanean jarraitzen dute.

4. EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak zenbakitan

4.1. EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak - 2018

Agiria: [Emakumeen aurkako indarkeriaren eragina: 2018ko datuen aurrerapena](#). EMAKUNDE


EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK ETA BIKTIMIZAZIOAK, INDARKERIA-MOTAREN ARABERA¹⁷. Absolutuak eta %a. EAE, 2018

2018		5.315 indarkeria-aldi	4.244 emakume
	Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria	3.974 aldi % 74,8	2.989 emakume % 70,4
	Familia barruko indarkeria	953 aldi % 17,9	870 emakume % 20,5
	Sexu-indarkeria	388 aldi % 7,3	385 emakume % 9,1

Indarkeriaren biktima izan diren emakumeen kopurua % 5,57 igo da 2017ko datuen aldean (emakume biktimen kopuruan).

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA.

Absolutuak eta %a. EAE, 2018



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, ADINAREN ARABERA. Eraitza orokorrak eta erasotzaile-motaren arabera. % EAE, 2018

	Guztira	Bikotekideak edo bikotekide ohiak	Familia barrukoa	Sexu-askatasuna
18 urte baino gutxiago	11,6 %	2,2 %	31,2 %	40,9 %
18 eta 30 urte bitarte	28,2 %	31,5 %	14,1 %	34,6 %
31 eta 50 urte bitarte	47,4 %	58,0 %	22,7 %	20,3 %
50 urtetik gora	12,8 %	8,4 %	32,0 %	4,2 %

4.2. EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuen ondorio nagusiak

Agiria: EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoen azterketa eta interpretazioa (2018ko datu estatistikoen gainean) EMAKUNDE. Ondorio nagusiak:

- Emakumeen aurkako indarkeriak oraindik ere biktima asko eragiten ditu urtean. 2018an, EAEko 4.244 emakume baino gehiagori eragin zien. Lehen mailako arazo politikoa eta soziala da oraindik ere.
- Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria da ohikoena, baina ez dira alde batera utzi behar familia barruko indarkeria eta sexu-indarkeria.
- Indarkeria jasaten duten emakumeen profil zehatzik ez dago. Aurpegi anitz dituen problematika da.
- Desgaitasuna duten emakumeen eta bizitegi-bazterketan dauden emakumeen kolektiboari dagokionez ezjakintasun handia dago indarkeria matxistaren inguruan (inbisibilizazioa).
- Garrantzitsua da lan egitea gazte jendearen artean genero-estereotipoak eta -rolak ez transmititzeko, eta sare sozialen bidez egiten diren eraso matxistaren modu berriei erantzuteko.
- Emakume bakoitza zein unetan dagoen errespetatzea eta sistema judizialak emakumeak babesten dituzten neurriak eta epaiak ezartzea funtsezko alderdiak dira emakumeek aurrerako urratsak egin ditzaten.
- Seme-alabak ere emakumeen aurkako indarkeriaren biktima dira, eta, egungo baliabideak kolektibo hori babesten ari diren arren, beharrezkoa da ildo horretan lan egiten jarraitzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak kuantifikatzea eta biltzea arazoa da oraindik ere.
- Emakumeen aurkako indarkeria egiturazko indarkeria da. Beraz, ez zaio eremu pribatuari lotu behar, arazo soziala baita.

5. Emakumeen aurkako indarkeriaren baliabideak. Epaitegiak eta pertsonak eta zerbitzuak

5.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko eskumenak dituzten epaitegiak

ARABA	2	
EGIE eskusiboak	1	Emakumeen gaineko indarkeriaren 1 zk.-ko Epaitegia, Vitoria-Gasteiz
Epaitegi mistoak	1	Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Amurrioko 1 zk.-ko Epaitegia
GIPUZKOA	6	
EGIE eskusiboak	1	Emakumeen Aurkako Indarkeriaren arloko Donostiako 1 zk.-ko Epaitegia.
Epaitegi mistoak	5	Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Azpeitiko 1 zk.-ko Epaitegia
		Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Bergarako 2 zk.-ko Epaitegia.
		Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Eibarko 2 zk.-ko Epaitegia.
		Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Irungo 4 zk.-ko Epaitegia
		Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Tolosako 1 zk.-ko Epaitegia
BIZKAIA	8	
EGIE eskusiboak	3	Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Bilboko 1 zk.-ko Epaitegia.
		Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Bilboko 2 zk.-ko Epaitegia.
		Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Barakaldoko 1 zk.-ko Epaitegia
Epaitegi mistoak	4	Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Balmasedako 1 zk.-ko Epaitegia
		Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Durangoko 4 zk.-ko Epaitegia
		Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Gernikako 3 zk.-ko Epaitegia
		Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Getxoko 4 zk.-ko Epaitegia
Zigor-arloko Epaitegi espezializatua	1	Zigor Arloko Bilboko 6 zk.ko Epaitegia

EUSKADI	16	(PENAL ESPEZIALIZATU 1 barne)
EGIE eskusiboak	5	
Epaitegi mistoak	10	(Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegia)
Zigor-arloko Epaitegi espezializatua	1	

5.2. Pertsonak

5.2.1. Epaileak, Letradunak, Fiskalak

EGIE guztiek daukate epaile eta letradun bat esleituta, gai horretan dedikazio eskusiboa duena. Indarkeriaren arlo zehatzekoak ez direnetan, gai hau beste batzuekin uztartzen dute.

Fiskaltzari dagokionez, Lurralde-fiskaltza bakoitzean genero-indarkeriako gaietarako Fiskal Ordezkarik bat dago, eta gai horietan esku hartzen dute bai espezialitateko fiskalek, bai guardiako fiskalek, bai behar bezala artatzeko zehazten diren gainerako guztiek.



5.2.2. Kudeaketa, Izapide eta Laguntza kidegora atxikitako langileak

Barruti judiziala	Organo judiciala	Lanpostu-zerrenda / Langileak				Errefortzuak		
		Kud.	Iza.	Lag.	Guzt.	Kud.	Iza.	Lag.
Amurrio	ZULUP 1 - Epaile bakarreko organo mistoak	2	3		5			
Azpeitia	ZULUP 1 - Epaile bakarreko organo mistoak	2	4		6		1	
Balmaseda (*)	ZULUP 1 - Epaile bakarreko organo mistoak	2	3+1(*)		5+1(*)			
(*) ZULUP: Erregistro Zibila ere atxikita dauka								
Eibar	ZULUP 2 - Epaile bakarreko organo mistoak	2	2		4			
Tolosa	ZULUP 1 - Epaile bakarreko organo mistoak	2	2		4			
Bergara	ZULUP 2 - Epaile bakarreko organo mistoak	2	2		4			
Gernika-Lumo (**)	ZULUP 3 - Epaile bakarreko organo mistoak	2	2(**)		4(**)			
Durango (**)	ZULUP 4 - Epaile bakarreko organo mistoak	2	2(**)		4(**)			
Irun (**)	ZULUP 4 - Epaile bakarreko organo mistoak	2	3(**)		5(**)			
Getxo (**)	ZULUP 4 - Epaile bakarreko organo mistoak	2	2(**)		4(**)	1	1	
(**) Lanpostu-zerrenda aldatu da (Zerbitzu Erkideko lanpostuak amortizatu dira eta ZULUP multzoan sortu dira) Funtzioak beharren arabera esleitzea 1 Izapidetze Prozesal eta Administratibo: Irun eta Gernika; 3 Izapidetze Prozesal eta Administratibo: Getxo eta Durango								
Donostia	Zigor-arloko ZULUP - Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegia	3	4		7		2	
Vitoria-Gasteiz	Zigor-arloko ZULUP - Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegia	3	3		6		1	
Barakaldo	Zigor-arloko ZULUP - Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegia	3	4		7			
Bilbo	Emakumearen aurkako Indarkeria 1 zk.ko Epaitegia	3	6	1	10			
Bilbo	Emakumearen aurkako Indarkeria 2 zk.ko Epaitegia	2	6	1	10	1	1	
Bilbo	Zigor-arloko 6 zk.ko Epaitegia	1	1	1	3		1	

Kontuan hartu behar da epaitegi ez espezifikoetan langileek beste era bateko gaiak ere landuko dituztela.

5.2.3. Izapidetutako gaiak

Gaiak eta lan-karga EGIEetan

	Izapidetze-fasean dauden gaien kopurua hasieran + sartutako gaien kopurua (1)		Lan-kargaren modulua (JUS/1415/2018 Agindua) (2)	Aldea
	Zibila	Penala		
VITORIA-GASTEIZ	216	1.305	1.600	-79
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	212	1.297		-91
BARAKALDO	147	1.251		-202
BILBAO 1	157	1.309		-134
BILBAO 2	146	1.306		-148

(1) 2018ko datuak

(2) Módulo de carga a partir de 2019

Genero-indarkeriaren gaiak epaitegi mistoetan

	GAI-KOPURUA		
	Penala	Zibila	GUZTIRA
Amurrioko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko ZULUP	109	7	116
			116
Tolosako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko ZULUP	257	20	277
Azpeitiko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko ZULUP	152	25	177
Bergarako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2 zk.ko ZULUP	200	36	236
Eibarko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2 zk.ko ZULUP	185	15	200
Irungo Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko ZULUP	320	18	338
			1.228



Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko ZULUP	291	38	329
Gernika-Lumoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 3 zk.ko ZULUP	293	25	318
Balmasedako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko ZULUP	120	7	127
Getxoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko ZULUP	458	34	492
			1.266

5.2.4. Zerbitzuetara esleitutako langileak

LANPOSTUA	ABIUak	TPJak	BLZ	DLJ	EIKZ	ZKEZ-GAKOA	FE	GUZTIRA
Arduraduna			1					1
LHko koordinatzailea		3					4	7
Zentroko arduraduna					1			1
Teknikaria *			9			13		22
Zuzenbidean lizentziaduna **			3	15		3		21
Psikiatra	10							10
Psikologoa	7	16					6	29
Gizarte-langilea	4	6					3	13
Hezitzailea		6					29	35
Administrazioko langilea		4	3		2	3		12
GUZTIRA	21	35	16	15	3	19	42	151

* Gradua: Psikologia, Gizarte-lana, Gizarte-hezkuntza edo antzeko arloak

** Gaur egun guardiako 8 letradun eta premialdiko 7 langile

Beste biktima eta kolektibo batzuekin ere lan egiten dute ABIU, TPJ, BLZ, ZKEZ-GAKOA eta FEra esleitutako langileek.

BLZn, ez dira kontuan hartzen biktimari laguntzeko programa pilotuaren gehikuntzak (ZUREKIN)

6. Zerbitzuak

6.1. Auzitegiko Balioespen Integraleko Unitateak (ABIU)

6.1.1. ABIU dira

Diziplina anitzeko taldeak, Auzitegi Psikiatriako atalaren mendekoak, AMEiko Auzitegi Medikuntzako Klinikako Arlo/Zerbitzuaren barruan. Beren funtzioa da genero-indarkeriaren eta familia barruko indarkeriaren kasuetan osoko irizpena prestatzea.

Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren bigarren xedapen osagarritik datoz:

Gobernuak eta justizia-arloan eskumenak bereganatu dituzten autonomia-erkidegoek, bakoitzari dagokion esparruan, auzitegiko zerbitzuak antolatuko dituzte; horrenbestez, auzitegiko balorazio osorako unitateak izango dituzte, genero-indarkeriazko kasuak daudenean esparru guztietan eta bete-betean jarduteko protokoloak egingo dituztenak.

6.1.2. ABIUen sorrera eta protokoloen onarpena

Justizia Administrazioarekiko Harremanen zuzendariaren 2009ko otsailaren 4ko Ebazpenaren bidez sortu ziren ABIUak:

"Lehen artikulua. Xedea eta helburua.

- 1.- Genero-indarkeriaren eta familia barruko indarkeriaren Auzitegiko Balioespen Integraleko Unitateen funtzioak Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren erkidegoko hiru lurraldeetako Klinika Zerbitzuetara atxikitzea da agindu honen helburua...*
- 2.- aurrean, gai honetan prestakuntza jaso duten profesionalen aldetik jarduera espezializatua beharrezkoa baita arazoaren oso-osoko balorazioa egin ahal izateko, eta, ondorioz, Justizia Administrazioko erakundeek eta biktimak babesteko organismoek garatzen dituzten jardueri laguntza emateko.*

Bigarren artikulua. Osaera eta egoitzak.

- 1.- Auzitegiko Balioespen Integraleko Unitateak diziplina anitzeko hiru taldek osatzen dituzte. Psikiatrian adituak diren auzitegi-medikuz, gizarte-langilez eta psikologo osatutako taldeak dira, lurralde historiko bakoitzeko bana.*
- 2.- Hiriburuetako hiru justizia-jauregietan daude egoitzak.*



Hirugarren artikulua. Giza baliabideak eta baliabide materialak.

2.- Auzitegiko Balioespen Integraleko Unitateek beren beharrizanetara egokitutako programa informatiko bat edukiko dute, Klinika Zerbitzuen programan jasota, Euskal Autonomia Erkidegoan ondorengo ikerketa-proiektu eta -azterketetarako sortzen diren datu eta txosten guztiak igorri eta eduki ahal izateko.

Laugarren artikulua. Txostenak eta inprimakiak.

1.- Guardiako auzitegi-medikuak, epaitegiek edo fiskaltzak peritu-txostena egiteko eskatu ahal izango diete Auzitegiko Balioespen Integraleko Unitateei, eskatu denari buruzko ahalik eta informazio gehien eskuratze aldera. Txostena bakarra izango da, eta diziplina anitzeko talde osoak modu bateratu eta koordinatuan egingo du.

2.- Genero-indarkeriaren eta familia barruko indarkeriaren Auzitegiko Balioespen Integraleko Unitateetako diziplina anitzeko talde bakoitzeko profesionalek txostenak egiteko eta datuak biltzeko diseinatzen diren inprimakiak erabili beharko dituzte.

2009ko otsailaren 10eko ebazpenaren bidez, Auzitegiko Balioespen Integraleko Unitateen protokoloa onartu zen. Haren 7.5. artikulua honako hau zehazten du:

Auzitegi Psikiatriako Ataleko Auzitegiko Balioespen Integraleko Unitateetan psikiatrian adituak diren auzitegi-medikuak, psikologoak eta gizarte-langileak daude, eta genero-indarkeriaren eta familia barruko indarkeriaren kasuetan irizpen integral bat egiteko gai den diziplina anitzeko talde bat eratzea dute xede.

Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua arautzen duen azaroaren 21eko 236/2012 Dekretuak honako hau zehazten du 7.5. artikuluan:

Auzitegi Psikiatriako Ataleko Auzitegiko Balioespen Integraleko Unitateetan psikiatrian adituak diren auzitegi-medikuak, psikologoak eta gizarte-langileak daude, eta genero-indarkeriaren eta familia barruko indarkeriaren kasuetan irizpen integral bat egiteko gai den diziplina anitzeko talde bat eratzea dute xede.

6.1.3. Biktimen eta biktimarioen ebaluazio bio-psiko-soziala

Emakumeen aurkako indarkeriaren kasuan, fenomeno honek konnotazio desberdinak ditu beste jarrera oldarkor batzuen aldean, eta, beraz, beste modu batera eta ikuspegi bio-psiko-soziala kontuan hartuta jorratu behar da.

Horrenbestez, hiru eratako profesionalek parte hartu behar dute auzitegi-ebaluazioan: gizarte-langileek, psikologoek eta medikuek. ABIUen birtualtasuna da, izan ere, balorazio bakarrean koordinatzea eta txertatzea informazio sozio-familiar, psikologiko eta mediko guztia.

Fenomenoaren ikuspegi globala eduki nahi da, eta, beraz, ez da nahikotzat jotzen azterketan biktima edo erasotzailea soilik jorratzea; aitzitik, bi alderdiak hartu behar dira aintzat, bai eta familia-unitatean inplikaturako kide guztiak ere, batez ere seme-alabak.

Peritu-erakundeak diren aldetik, ABIUen helburua da biktimak eta biktimarioak ebaluatzea, eta organo judizialek eskatzen dituzten gaiei erantzutea:

- Biktimen kasuan, lesioari buruzko peritu-txostenak izan ohi dira. Lesioaren kontzeptuaren barruan, osasun fisiko edo psikologikoan egindako edozein kalte sartzen da. Batez ere lesio psikologikoa ebaluatzen da. Izan ere, lesio fisikoren bat egon bada, normalean hori dagoeneko ebaluatu dute auzitegi-mediku orokorrek.
- Biktimarioei buruzko peritu-txostenetan bi alderdi jorratzen dira:
 - Egozgarritasuna, edo, hobeto esanda, gertaeraren legezkontrakotasuna ulertzeko edo ulermen horren arabera jarduteko orduan eragiten duten gaitasun psikikoak (ezagutza eta borondatea) zehaztea.
 - “Arriskugarritasuna” deritzana, edo, hobeto esanda, etorkizuneko jarrera oldarkorren arrisku-faktoreen ebaluazioa. Zalantzarik gabe, baloraziorik konplexuena da. Izan ere, etorkizunera begiratzen du. Ez dago formularik edo tresnarik arrisku hori zehatz-mehatz definitu ahal izateko. Hala ere, indarkeria-giroaren balorazioa egiten da, eta parametro bio-psiko-sozialen arabera eta biktimei eta erasotzaileei erreparatuta, jarrera oldarkorrek errepikatzeko arrisku-faktoreen ebaluazioa zehazten da, batez ere jarrera larrienen kasuan, biktimaren bizitza suntsitu baitezakete. Argi geratzen da, edonola ere, pronostiko hori ez dela kasu guztietan beteko, beti egongo baitira aldaerak, “a priori” hauteman ezin direnak edo ezustekoak izan direnak.

6.1.4. Metodologia

Aurretiazko azterketa	ABIUn sartzen den kasu bakoitza zitazioa baino lehen aztertzen da, agenda bidez, nola banatu erabakitze eta zenbait izapide aurreratzeko, esaterako mediku-txostenak eskuratzeko, baldin eta mediku-zentroren batean artatu dutela jakiten badugu. Halaber, profesional guztiek edo batzuek parte hartu behar duten erabakitzen da, azalduko ditugun irizpideen arabera, eta nola jardun ere zehazten da.
------------------------------	---

Elkarriketak eta ebaluazioa	Hitzorduak	Egun desberdinak ezartzen dira biktima eta biktimarioentzat.
	Profesionalak	Orokorrean, guztiak —hots, biktimak nahiz biktimarioak— pasatzen dira hiru profesionalen kontsultatik (gizarte-langilea, psikologoa eta auzitegi-medikua).
		Haurren kasuan, biktimizazio bikoitzak saihesteko, mediku edo psikologo bakar batek esku har dezan saiatuko gara. Azterketa egiteaz gain, adingabearen erreferentziazko figura helduarekin esku hartuko du langileak.
		Biktimarioek gaixotasun mental psikotikorik badute, bestalde, azterketak auzitegi-medikuak egiten ditu, eta, batzuetan, gizarte-langileak..
		Profesional bakoitzaren esku-hartzea, orokorrean, indibiduala da. Hala eta guztiz ere, kasu jakin batzuetan esku-hartze bateratuak egiten dira: • adingabeen kasuan, biktimizazio bikoitzak saihesteko. • Egoitzatik urrun bizi diren biktimen edo biktimarioen kasuan, oso kaltegarria izango litzateke hiru esku-hartzeak bereizita egitea, egun berean egin ezin badira, eta, era berean, egun berdinean egitea ere kaltegarria litzateke aztertuarentzat.
	Esku hartzeko ordena	Inicialmente habíamos previsto un orden de intervención. 1º el trabajador social. Después el psicólogo y por último el Hasiara batean, esku hartzeko ordena bat aurreikusi genuen: Lehenik, gizarte-langilea. Ondoren, psikologoa eta, azkenik, auzitegi-medikua. Jarduketa-arrazoiak eta, areago, arrazoi metodologikoen ondorioz, irizpide hori egokitzen joan gara. Hala, gaur egun, oso malgua da irizpidea. Esaterako: drogak zehazteko laginak hartu behar direnean, lehenik eta behin auzitegi-medikuak esku hartzen du denborari aurrea hartzeko (emaitzak nabarmen atzeratu daitezke)..
	Iraup.	Elkarriketa bakoitzak 45 eta 60 minutu arteko iraupena du.
	Gun.	Bi azterketa-gune: mediku-gune bat eta psikologia-gune bat. Bietan daude audio-bideo grabaketarako sistemak
	Graba.	Adingabeekin egiten diren elkarriketa guztiak grabatzen dira. Erreferentziazko helduei egindako elkarriketekin osatzen da. Helduen elkarriketetetan, irizpide teknikoak eta kasuaren zailtasunak direla eta beharrezkoa denean, grabatu egiten da.

	Txandak	Egun bakoitzean 2 mediku, 2 psikologo eta 2 gizarte-langile daude lanean. Psikologo eta gizarte-langile bakoitzak egunean hiru pertsonari egiten die azterketa. Auzitegi-mediku bakoitzak lau pertsonari egiten die azterketa. Hala, egunean, batez beste, 20 azterketa egiten dira.
Esped. judiziala	• IU espedientearen zenbakia. • Aztertzen den biktimia eta biktimario bakoitzari karpeta bat esleituko zaio, zenbaki jakin batekin. • ABIU espediente bakoitzean, orokorrean, talde berberak esku hartzen du (gizarte-langilea, psikologoa eta auzitegi-medikua); ondorioz, profesional talde horrek aztertuko ditu gai edo prozedura bereko biktimak eta biktimarioak	

Peritu- txostena	• Bateratua, bakarra eta hiru profesionalak sinatua. • Txostenean ezin dira desadostasunak edo inkongruentziak agertu profesional desberdinen parteen artean. Profesionalen artean ikuspegi desberdinak hautematen badira, gutxieneko batzuk adostu behar dira, txosten bateratua igorri ahal izateko. • Edukia		
	Datu orokorrak ✓ Peritu-txostena agintzen duen organo judiziala, ✓ Kausa, ✓ ABIUren kodifikazio propioa, ✓ Peritu-txostenean jorratutako pertsona, ✓ Erabilitako metodologia, eta abar.	Datu bateratuak ✓ Familia-aurrekariak. ✓ Aurrekari pertsonalak.	Datu zehatzak ✓ Azterketa sozio-familiarra (gizarte-langilearena) ✓ Azterketa psikologikoa (psikologoarena) ✓ Auzitegi-medikuntzako azterketa (medikuarena) ✓ Ondorio sozio-familiarrak ✓ Ondorio psikologikoak ✓ Auzitegi-medikuntzako ondorioak ✓ Arriskugarritasuna
Koord.	Hamabost egunean behin, bilerak egiten dira, ABIUri buruzko alderdi guztiak jorratzeko: kasu klinikoak, metodologiari buruzko gaiak, ikerketa-proposamenak, irizpideen berrikuspina eta abar.		

ABIUri buruz hitz egiten ari garenean auzitegi-unitate espezializatuta dela adierazten dugun arren, argitu beharra dago peritu-alorra, kasu hauetan, orokorrean, guardia-zerbitzuan bertan hasten dela, guardiako auzitegi-medikuak esku hartzen duenean, bera baita lehenengo esku hartzen duena. Esku-hartze horrek zehazten du biktimarekin edo erasotzailearekin izango den lehen harremana.

6.2. Talde Psikosozial Judizialak (TPJ)

6.2.1. TPJ da

Justiziako Sailburuordetzaren menpe dagoen organo tekniko bat da TPJ. Bere xedea da jurisdikzio guztietan —bereziki, jurisdikzio zibil-familiar eta penalean— laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea epaitegiei, auzitegiei eta fiskaltzei, bere espezializazio-eremuan.

Adingabeen Epaitegietara atxikitako aurreko talde teknikoetan eta Familia Epaitegietara atxikitako aurreko talde psikosozialetan du jatorria. TPJ gisa duen egitura 1998koa da, eta 2004an arautu zen Justiziako sailburuordearen 2004ko urtarrilaren 14ko ebazpenaren bidez. Horren bidez, Talde Psikosozial Judizialaren funtzionamendu-arauak ezartzen dira. 5/2000 Lege Organikoaren ziozko guardiei dagokienez, Giza Baliabideak Antolatzeke zuzendariaren 2001eko ekainaren 7ko Ebazpenak arautu zituen Euskal Autonomia Erkidegoko talde psikosozialen guardiak.

Ebazpenaren oinarritzko jardun-printzipioa adingabearen interesa da, zeina irizpide teknikoen eta inpartzialtasunaren arabera baloratzen baita.

6.2.2. Osaera eta kokapenak

TPJn sartzen dira psikologoak, gizarte-langileak, hezitzaileak eta administrariak, koordinatzaile orokorraren eta lurralde-koordinatzaileen zuzendaritzapean. talde bat dago lurralde historiko bakoitzean. Bizkaian, egoitzak daude Bilbo eta Barakaldoko eraikin judizialetan; Gipuzkoan, Donostiako eraikin judizialean, eta Araban, Vitoria-Gasteizko eraikin judizialean.

6.2.3. Funtzioak

- Organo judizialek eta fiskalek eskatuta peritu-txosten psikologikoak, psikosozialak, gizarte eta familiakoak eta gizarte eta hezkuntzakoak igortzea, eta epaiketan defentsa egitea.

- Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen Legeak “talde teknikoak” egin behar dituela ezartzen duen eginkizun guztiak betetzea.
- Epaile eta fiskalekin batera aritzea adingabearen intereseko proba/egintza prozesalen garapenean.
- Legean espresuki erabakitako beste esku hartze batzuk.

Zehatzago esanda:

EREMU ZIBILA	
<i>Peritu-ebaluazio psikologiko, psikosozial eta soziofamiliarra familiaren zuzenbideko prozesuetan</i>	Arlo hauen gaineko ebaluazio psikologiko, psikosozial edo/eta soziofamiliarra: haurren zaintzarako aukeretan gurasoek dituzten eskumen eta gaitasunak, bizikidetzarako aukerak eta bi gurasoek (edo funtzio hori betetzen dutenek) dituzten harremanen edo adingabeen intereserako beharrezkotzat jotzen diren harremanak, bai eta komunikaziorako eta egonaldietarako araubidearen eta gurasoen eta seme-alaben arteko nahiz beste azpisistema batzuetako (aitona-amonak eta bilobak...) beste harreman-sistema batzuk ere.
<i>Peritu-ebaluazio psikosoziala adingabeak babesteko prozeduretan</i>	TPJri eskatzen zaion ebaluazio psikologiko/psikosoziala, askotariko prozedura zibiletan: foru-aginduen aurkakoetan, zaintzakoetan, guraso-ahala kentzekoetan, familia-harrerara edo adopziokoetan eta abar.

HELDUEN ZIGOR-ARLOA	
<i>Aurrez eratutako froga eta beste adierazpen judizial zaurgarri batzuk, adituen laguntzaz eginak</i>	<i>Adituen adierazpena lekukotza zaurgarri buruz (adingabeak eta ezinduak, prozedura judizial hauetan sartutakoak), aurrez eratutako eta aurreratutako frogen bidez, bai eta pertsona zaurgarri horiek egiten dituzten beste adierazpen batzuk ere, delituaren biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legean ezarritakoari jarraikiz.</i>
<i>Haurren lekukotzaren sinesgarritasunaren ebaluazio psikologikoa</i>	Auzitegi-elkarrizketaren protokolo zehatzen eta tekniken bidez eskuratutako memoria episodikoaren kontakizunaren ahozko edukiaren azterketa.

<i>Adingabeak diren biktima eta lekukoak gaineko kalte psikologikoaren ebaluazioa, eta adingabe edo ezindu beraren gaineko proba psikologiko edo psikosozialak</i>	Peritu-balorazioa egoera psikologikoari eta emozioen gaineko eragin posibleari buruz, delitu-gertaeren ziozko ondorio psikologikoei buruz, eta horiei lotutako adierazle emozionalei buruz, indarkeria-motaren bat jasan duten adingabeen eta ezintasundun pertsonen kasuan edo indarkeria-egoerak ikusi dituztenen kasuan, batez ere familia-inguruan gertatu badira.
<i>Zigor-arloko beste jarduera batzuk: epaiketan dauden biktima eta lekuko zaurgarrien aitorpenean laguntzea eta aitorpenaren eragin psikologikoa baloratzea</i>	Aurrez eraturako edo aurreratutako proba egokia egin ez den kasu batzuetan, eta, beraz, grabatutako aitorpena ahozko epaiketara sartu ezin denean, biktima edo lekukoentzako laguntza profesionala eskatzen da. Adingabearen edo ezintasuna duen pertsonaren aitorpena egiteko aditu baten laguntza behar duten kasuak (edo antzekoak), edo adingabeen edo ezintasuna duen pertsonarengan aitorpen horrek eragin dezakeen azterna psikologikoaren balorazioa.

GAZTEEN ZIGOR-ARLOA

<i>Aholkularitza-txostenak</i>	Ebaluazio psikologiko, sozio-familiar eta hezitzailea, bai kautela-neurriei buruzko txosten eta proposamenetarako (5/2000 Lege Organikoaren 28. eta 29. artikulua eta hura garatzen duen Erregelamendua), bai adingabe arau-hausleei buruzko aholkularitza-proposamenetarako eta txosten nagusirako (5/2000 Lege Organikoaren 27. artikulua eta hura garatzen duen Erregelamendua), bai eta prozesuko beste une batzuetan egiten direnak ere (instrukzioa, entzunaldia, neurrien betearazpena), adingabeari ezarritako neurrien aldatetekin eta ikerketa, instrukzio edo entzunaldiko nahiz ezarritako neurriak betearazteko prozesuan zehar egondako beste gertakari batzuekin lotuta.
<i>Esku-hartzea justiziaz kanpoko irtenbideetan (gazteen justizia errestitutiboa):</i>	5/2000 Lege Organikoaren 19. artikuluan eta hura garatzen duen erregelamenduan deskribatutako esku-hartzea, justiziaz kanpoko irtenbideak deritzanei buruz. Gazteen justizia errestitutiboko adierazpen horiek TPJren bitartekaritza- eta konponketa- programaren barruan sartzen dira.
<i>Adingabeari laguntzeko jarduera</i>	Ikertzen ari diren adingabearen eskubidea, adingabeari laguntzeko jarduera bat eduki dezan (5/2000 Lege Organikoaren 22. artikulua).

BESTE EREMU BATZUK

Beste peritu-txosten batzuk, besteak beste:

- ✓ ezintasunen eremuko edo gatazka zibiletako eragin psikologikoaren balorazioarekin lotutakoak,
- ✓ egintza jakin batzuei buruz erabakitze gaitasunarekin lotutako gaiak,
- ✓ lan-arloko jurisdikzioaren prozeduretako balorazio psikologiko/psikosoziala (laneko jazarpena, burnout sindromea, eta abar),
- ✓ administrazioarekiko auzien prozesuetako txosten psikologiko jakin batzuk,
- ✓ zinpekoen epaimahaiarekin lotutako txostenak eta abar, eta
- ✓ organo epaileak egokitzen dituen bestelako txosten psikologikoak, soziofamiliarak eta hezitzaileak.

6.2.4. Koordinazioa beste zerbitzu batzuekin

Biktimei buruzko peritu-txostenen kasuan, koordinazioa erraztu eta biktimarengan ezinbestekoak ez diren kalteak saiheste aldera, barne-protokolo bat antolatu da Talde Psikosozial Judizialaren eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren artean, eta, horren arabera, horietako bakoitzaren benetako funtzioak gorabehera, adinez nagusia den biktima bati buruzko txostenak Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren zuzendariordetzei eskatuko zaizkie, eta adingabeei buruzko txostenak, bestetik, Talde Psikosozial Judizialari. Horien artean koordinatuta egongo dira, eta eskatzaileari bi arloei buruzko txostenak bidali beharko dizkiote.

Era berean, Delituen Biktimei Laguntzeko Zerbitzuekin etengabeko eta norabide biko koordinazioa egotea aurreikusten da.

6.3. Biktimei Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)

Doako zerbitzua da, legelariak, psikologoak, gizarte-langileak eta administrari-laguntzaileak osatzen duten talde profesional batek kudeatzen duena. Horiek guztiek delitu baten biktima izan den pertsonari informazio eta laguntza zuzena emateko orduan esku hartzen dute. Halaber, zerbitzuaren barruan tratamendu psikologikoa eta legezko aholkularitza ematen da, baita gizarte- eta osasun-mailako harrera edo bideratze egokia egin ere.

Zerbitzuaren ekintza batez ere ardatz hauetan egituratzen dira:

- Biktimei informazioa, prozedura polizial eta judizialei buruz, prozesua amaitzen den arte; erakundeen arreta-programa zehatzak; dirulaguntzak; ondorengo biktimizazioen arriskua saihesteko jarduerak eta abar.

- Arreta zehatza, juridikoa -izapide egokiak betetzen direla bermatzea-, psikologikoa, osasunekoa, familiarrak eta soziala, kasuan kasuko zerbitzuetara bideratuta.
- Arreta etengabea, aldizka informazioa emanaz salaketaren izapideei buruz, bilakaera sozio-emozionalaren jarraipena eginez eta segurtasun-faltaren eta isolamenduaren sententzioa murriztuz.

6.3.1. BLZ eta biktimak

BLZk orientazioa emango die edozein delituren biktima izan diren pertsoneri, Zerbitzura jotzen badute, sare judizialarekin eta, hala badagokio, lan-arloarekin lotuta.

Arreta hori, zehazki, honako jarduera hauen bidez gauzatuko da:

- Salaketa jarri aurretik, orientazioa ematea, eta salaketaren nondik norakoak gainbegiratzea prozesua erabat amaitu arte.
- Delituak eragindako ondorioei ahalik eta ondoen nola erantzun jakiteko orientazioa ematea biktimari.
- Behar beste informazio ematea prozesuaren izapideei buruz, dagozkion eskubideei buruz, jaso ditzaketen laguntza ekonomikoei buruz eta eskura dituzten baliabide sozialei buruz.
- Laguntza psikologikoa eta soziala ematea biktimari, beharko balu.
- Eskumena duten gizarte-zerbitzu edo osasun-zerbitzu egokietara bideratzea, beharko balu.
- Prozesu horietan guztietan lagun egitea biktimari; batez ere, prozesu judizialetan.

6.3.2. BLZ eta profesionalak

Delitu baten biktimarekin harremanetan jartzen den profesional-taldeak dauden baliabideak ezagutu behar ditu, legezkotasunaren, terapiaren eta laguntzaren ikuspegitik, irtenbiderik egokiena emateko biktimaren egoerari. BLZk orientazioa eman diezaieke lan horretan, nahiz kasu zehatz bakoitzaren azterketak zerbitzu edo erakunde egokietara bideratzea komeni dela zehaztu dezakeen.

6.3.3. BLZ eta Epaitegiak eta Fiskaltzak

BLZ, zehazki, JAren humanizazioaren alde eta biktimaren beharrianak asetzearen alde ageri da. Horretarako, eragile juridikoekin lankidetzan aritzen da, azken horiek beharrezko informazio oro eduki dezaten.

BLZren jarduera nagusietako bat da, hain zuzen ere, epaitegi eta fiskaltzei era guztietako txostenak egitea (biktimaren egoera sozial, pertsonal, familiar, psikologiko eta ekonomikoari buruz, betiere biktimaren baimena izanda).

6.3.4. BLZ eta gizartea

BLZk alderdi soziala ere garatzen du, herritarren segurtasun-faltaren sentimendua murriztu eta arintzeko asmoz.

Alor horretan egiten duen jarduera honako hau da:

- Informazioa eskaini eta biktimizazioa prebenitzeko neurriak hedatzea, delitu baten ondorioak jasanez gero.
- Gaiari inplikaturako erakundearen koordinazioa sustatzea: epaileak, fiskalak, polizia, gizarte-zerbitzuak eta abar.
- Prozesu judizialaren funtzionamendua (ikerketaren fasetik ebazpenera arte) eta Justizia Administrazioa hobeto ezagutzen laguntzea herritarrei.

Horretarako, kartelak zabaltzen ditu erakunde eta organismoetan (polizia-etxeak, abokatuen elkargoak, epaitegiak, gizarte-zerbitzuen zentroak eta abar), baita informazio-triptikoak ere; bilerak egiten ditu jarduera-arlo honetan esku hartzen duten talde, erakunde eta elkarteekin, eta iritzia jaso eta inkestak egiten ditu biktimizazioaren gainean.

6.3.5. BLZ, biktimizazio bikoitza saihesteko lankidea

Delituzko egintza bat gauzatu ondoren, sortutako kalte fisiko, ekonomiko, psikiko eta sozialaz gain, biktimak eragin emozional larria jasan ohi du, eta eragin hori batzuetan areagotu egiten da, orokorrean ezezaguna zaigun sare juridiko-penalean sartzean.

Biktimak, orokorrean, ez ditu bere eskubideak ezagutzen, inork ez diolako legezko informazioa eman, eduki ditzakeen baliabideen berri izan dezan.

Jarduera horietan berehalako informazioa eta laguntza falta direnez, doktrinak “bigarren biktimizazioa” deitzen duen hori gertatzen da. Kasu askotan, esperientzia hori askoz kaltegarria suertatzen da delitu-jarduera bera baino, eta babesik gabe sentiarazten du sarri.

6.3.6. BLZ eta emakumeen aurkako indarkeria

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima den pertsonaren kasuan, babes-aginduaren eraginkortasuna, hein handi batean, lankidetzaren eta koordinazio-tresnen garapenaren menpe dago, horiei esker ematen baitzaio erantzun egokia kasuan kasuko zaugarritasun-egoera bereziari.

Horrenbestez, hainbat dira EAEn maila judizial eta sozialean nahiz espetxeen arloan eskumena duten administrazioen artean sinatutako koordinazio-protokoloak.

6.3.7. BLZren jarduerak

Informazio orokorra	Biktimak planteatutako gaiei buruz informazio orokorra emateko jarduera: eskubideak, salaketak, Doako Laguntza Juridikoa, laguntzak, gai judizialak, esku-hartzeak eta abar. Jarduera horietan ez da behar biktimaren baldintzen azterketa sakona egitea.
Harrera-elkarritzeta	Jarduera honetan, lehen harremana ezartzen da biktimarekin, konfiantza-giroa sortu eta beharrezko informazioa jasotzeko. Diagnostikoa egitea eta pertsonak errehabilitatu eta errekuiperatzeko jarraitu beharreko ibilbidea antolatzea da helburua.
Jarraipen-elkarriketak	Harrera-elkarriketan egindako lanarekin jarraitzen duen jarduera. Biktimaren arazoa sakontzeko, bere beharrianak zehazteko, egoera baloratzeko, eta, hala badagokio, esku-hartzea zuzentzeko edo/eta aldatzeko aukera ematen du.
Doako laguntza juridikoari buruzko aholkularitza	Biktimari informazioa eta aholkularitza ematen zaio Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan eta delitu biolentoetako eta sexu-askatasunaren kontrako biktimei dirulaguntzak eta aholkua emateko abenduaren 11ko 35/1995 Legean araututako laguntzen eskariari buruz.

Dirulaguntzen aholkularitza	Actuación consistente en informar y asesorar a la persona víctima sobre su solicitud de las ayudas reguladas en la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género y en la Ley 35/1995, de 11 de diciembre, de ayudas y Atención a la Víctima de delitos violentos y contra la libertad sexual.
Esku-hartze psikologikoa	Esku-hartze psikologikoa garatzen da, delitua bizi izanaren ondorioz galdutako edo kaltetutako tresnak eta gaitasunak berreskuratzeko. Era askotako esku-hartzeak daude: lehen balorazioak, krisi-egoeretako esku-hartzeak, elkarrizketa terapeutikoak eta tratamenduaren jarraipenak.
Informazio eta aholkularitza juridiko zehatza	Biktimari orientazioa ematea edozein gai juridikori buruz, eta, batez ere, prozesu judizialari eta salaketa jartzeko bideari buruzko zalantzak argitzen laguntzea.
Koordinazioa	Biktimak erakunde publiko eta pribatuekin ezartzen duen esku-hartzea koordinatzea.
Bideratzea	Biktima izan den pertsona erakunde publiko eta pribatuetara bideratzeko kudeaketak egitea, tratamendu bio-psiko-sozialarekin jarrai dezan.
Laguntza psikosoziala eginbide judizialeko	Biktimari laguntza ematea erakunde judizialekin harremanetan jartzeko. Prozedura judizialak emozioetan duen eragina arindu nahi da. Pertsonaren beharrianen arabera, jarduerak prozesuan edo prestakuntza-jardueretan parte hartu aurrekoak izan daitezke (epaitegietara edo antzeko epaiketetara laguntzea eta abar), edo bulego judizialeko eta biktimaren beraren prozesuaren epaiketara laguntzeko jardueretara muga daitezke.
Justizia Administrazioarekiko lankidetzak	Epaitegiekiko lankidetzak-jarduerak, BLZk garatzen dituenak epaitegiek eskatuta edo bere ekimenez: babes-neurrien idazkiak eta txostenak, peritu- eta lekukotza-jarduera, defendatzaile judizialekiko lankidetzak eta abar.
Kanpoko aholkularitza	BLZn egiten diren kontsultei buruzko informazioa eta aholkularitza ematea profesionalei.

6.3.8. BLZren 2017ko jardueraren memoria



6.3.9. BLZren kudeaketa

Euskadiko Birgizarteratze Institutua (IRSE.EBI) BLZ kudeatzen duen irabazi-asmorik gabeko erakundea da

6.4. Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Euskadiko Koordinazio Zentroa (EIKZ).

Uztailaren 31ko 27/2003 Legeak (Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duenak) babes-agindua sortu zuen. Horren arabera, epaileak eskatu eta adostutakoan, ebazpen judizial berean sartzen dira, elkarrekin, bai erasotzailearen gaineko zigor-arloko kautela-neurriak, egintza biolento berriak egitea saihestea xede dutenak, bai izaera zibil eta soziala duten babes-neurriak, etxeko indarkeriaren biktimak babesik gabe geratu ez daitezten eta duten zaurgarritasun-egoera bereziari erantzuna eman dakion.

Autonomia-erkidego bakoitzean, koordinazio-puntu bat ezarri da. Epaileak bertara igortzen du babes-agindua, eta bertatik bideratzen dira biktimak eskatzen dituen edo beharrezkoak diren laguntzak, komunikazio telematikoko sistema baten bidez. Sistema horrek aukera ematen du babes-agindua azkar bidaltzeko Guardiako Epaitegitik koordinazio-puntu horretara.

EAEn babes-aginduen koordinazio-puntua izateko funtzio hori da Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Euskadiko Koordinazio Zentroaren eginkizun nagusia eta izateko arrazoia. Justizia Zuzendaritzara atxikita dago, eta zerbitzu telematikoen bidez aritzen da. Hala, urteko 365 egunetan 24 orduz bermatzen du babes-agindua berehala komunikatu eta jakinaraziko dela hura ebazten duen organo judizialetik bere bulegoetara, Bilboko Justizia Jauregiko 8. solairuan (Barroeta Aldamar kalea 10).

Administrazio Publiko eta Justiziako sailburuaren 2014ko martxoaren 31ko Aginduaren bidez, Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Euskadiko Koordinazio Zentroaren egitura eta funtzionamendua arautu ziren. Hona hemen haren funtzioak:

1. *Genero-indarkeriaren gaietan neurriren baten jasotzen duten ebazpen judizial guztiak jasotzea*
2. *Genero-indarkeriaren biktimei jakinaraztea zein diren BLZk eskatzen dituen prestazioak.*
3. *Estatuko Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Erregistro Orokorreko informazioa eskuratzea.*
4. *Taldeen bileretan parte hartzea eta erakundeekin harremanak edukitzea, informazio-sistema bat eraikitzeko, genero-indarkeriaren egoerak zaintzeko eta horien jarraipena egiteko gai dena.*
5. *Justiziarekin Lankidetzan aritzeko Zerbitzuetako datuak mantendu, argitaratu eta eguneratzea.*
6. *Babes-aginduekin lotuta,*
 - a) *Laguntza eta gizarte-babesa emateko neurriak koordinatzea.*
 - b) *Biktimari informazioa ematea eta biktima gizarte-baliabide eta -laguntzetara bideratzea.*
 - c) *Biktimari kalte-egilearen prozedura-egoera etengabe jakinaraztea, bai eta kautelazko neurrien irismenari eta indarraldiari buruzko argibideak ematea ere.*
7. *Estatistikak egitea.*

6.5. Doako Laguntza Juridikoa (DLJ)

Justizia doakoa izango da legeak hori xedatzen duenean, eta, edozein kasutan, auzietan aritzeko beste baliabiderik ez dutela egiaztatzen dutenentzat.

Justizia Zuzendaritzak atxilotuaren edo/eta presoaren lege-laguntzaren eta ofiziozko txandaren gaineko doako justiziarako eta tutoretza eraginkorrerako eskubideak baliatu daitezela sustatuko du.

Horren harira, Justizia Zuzendaritzak administrazio-laguntza eta babes tekniko beharrezkoa ematen ditu Administrazioaren menpe dauden Doako Laguntza Juridikoaren batzordeen funtzionamendurako. Organo horiek, zehazki, Autonomia Erkidegoaren eremuan doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeaz arduratzen dira.

Gainera, Justizia Zuzendaritzak diruz laguntzen ditu Abokatu eta Prokuradoreen Elkargoak, Ofiziozko Txandak eta Atxilotuaren Legezko Laguntza, bai eta txandaren funtzionamenduaren gastuak ere.

Doako laguntza juridikoaren urriaren 30eko 153/2018 Dekretu berriak genero-indarkeriaren biktimekin lotutako araubide berezia ezartzen du:

- Doako laguntza juridikoa aitortzen zaie genero-indarkeriaren biktimei, txanda espezializatu gisa (33.2. artikulua).
- Abokatua, eta, hala badagokio, prokuradorea behin-behinean izendatzeko bermea, epai azkarretarako aurrerapen nahikoaz (17.9. artikulua).
- Auzietarako baliabideak gorabehera, eskubidea aitortzeko espedientea izapidetzeko prozedura orokorraren salbuespena (28.1.c artikulua).
- Biktimen eskubidearen aitortzea hedatu egingo da instantzia batean bertako izapide eta gertaera guztietara, betearazpena barne; salbuespena izango da, absoluzio-epaiaren eta behin betiko nahiz behin-behinean artxibatzeako epaiaren irmotasuna ezartzen bada, delitu-gertaerak egiaztatu ez direlako (29.1. artikulua).
- Biktimaren izaera nagusituko da, doako justiziaren onerako, prozesu berean ikertuaren izaera ere baduenean, letradun zuzendaritza izendatua jardungo delarik, salbu eta ezar daitezkeen salbuespenetan, bi prozesu-posizioetan biktimari laguntza emanaz (29.1. artikulua).
- Absoluzio-epai irmoa ezartzean edo prozedura artxibatzeko, doako justiziarako eskubidea galdu egingo da, eta ez da ordaindu beharko ordura arte doan jasotako prestazioen kostua; edonola ere, eskatzaileak auzian jarduteko baliabiderik ez edukitzearen

onura aitor dakiola eskatu ahalko du, legearen ministerioaren bidez aldeztu aurretik aitortu zaizkion prozedurekin jarraitzeko (29.2. artikulua).

- Genero-indarkeriaren biktimei doako laguntza emateko txandan, prestakuntza espezializatua eskatuko da, bai txanda horietara sartzeko, bai horietan mantentzeko (32.2. artikulua).
- Jarduera letradunaren unitatea. Genero-indarkeriaren delituen biktima izatearen ondorioz has daitezkeen prozesuetan, zuzendaritza letradun bera izan beharko da laguntzen duena, betiere horrekin bere defentsa-eskubidea behar bezala bermatzen bada (37.2. artikulua).

2007ko otsailaren 26an, hitzarmena sinatu da Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren eta Abokatutzako Euskal Kontseiluaren artean, emakumeen gaineko indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen delituen biktima diren pertsonen berehalako laguntza juridikoa emateko Euskal Autonomia Erkidegoan.

Hitzarmenaren helburua da laguntza juridikoaren prestazioaren baldintzak arautzea, biktimarentzako berehalako eta doako zerbitzua izan dadin, etxeko indarkeriaren, genero-indarkeriaren edo sexu-askatasunaren aurkako delituaren biktima izan dela adierazi duen edozein pertsonarentzat.

153/2018 Dekretua indarrean sartu ondoren, une honetan hitzarmen berri bat dago negoziatzen.

6.6. Zigorrek Kudeatzeko Euskadiko Zerbitzua (ZKEZ). Gakoa programa

2011ko abuztuaren 8an Barne Arazoetako Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Sailaren artean sinatutako hitzarmenaren arabera, ZKEZ arduratzen da gure erkidegoan gizartearentzat lan egiteko zigorrek (GILAN) benetan betearazteaz eta Euskal Autonomia Erkidegoko auzitegi eta epaitegien zigorrek betearazteko ezarritako beste era batzuk (askatasuna galarazten duten penen etendurak eta kondenen ordezkioak) betearazten direla zaintzeaz.

Halaber, kondentatuen helbidea gure erkidegoan kokatzen denean ere jarduten du, are epaia beste erkidego bateko epaitegi edo auzitegi batek eman duenean ere.

ZKEZek egiten dituen lanak lehen Atxilotuei Laguntza eta Orientazio Soziala emateko Zerbitzuak (ALOSZ) eta Birgizarteratzen Laguntzeko Zerbitzuak (BLZ) egiten zituzteneko batzuk dira. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko justizia-jauregietan zituzten egoitza fisikoak erabiltzen dira.

6.6.1. Zigorren kudeaketa

Pertsona batek delitu bat egiten duenean, epaileak zigorra edo segurtasun-neurria jartzen dio. Halakorik jarritakoan, zigor edo segurtasun-neurri hori betearazi behar da, eta organo judiziala arduratu behar da betearazteaz, askatasuna eduki zein ez.

Konstituzioaren arabera, zigorren eta segurtasun-neurrien lehentasunezko helburuetako bat da (baina ez bakarra), kondenatuak berreztea eta birgizarteratzea. Hori dela eta, ZKEZk zigorra edo segurtasun-neurria betetzen dela zaindu behar du, zigorra eten dadin, hala badagokio, erkidegoaren onerako lan-zigor bat aplikatu dadin edo segurtasun-neurri bat aplikatu dadin.

Ezarri den zigorraren ondorioz askatasuna galdu bada, espetxean sartzearen ordezkoko legezko aukerak aztertzen dira, zigor-erantzukizuna betearazten dela ziurtatuta.

6.6.2. ZKEZren eginkizunak

ZKEZ zuzenean arituko da lankidetzan organo judizialekin eta espetxeko administrazioarekin, eta ezarritako erkidegoaren onerako lan-zigorrek betearazteko beharrezko diren administrazio-jarduerak oso-osorik garatuko ditu, askatasunik gabe uzten duten zigorrak eteteko eta kondenak ordeztoko.

Hartara, honako jarduera hauek egingo ditu, besteak beste:

- Hitzorduak eta elkarrizketak garatzea zigortutako pertsonekin.
- Egikaritza-planak eta esku-hartzeko eta jarraipenerako planak prestatzea, baita bilakaerari eta jarraipenari buruzko nahitaezko txostenak ere, agintari judizialentzat (esku hartzeko programak, erkidegoaren onerako lanak...).
- Baliabideak bilatzea eta horietara bideratzea.
- Etete, ordezkapen eta EOLetan esku hartzeko programen jarraipena egitea.
- Espetxe-zerbitzuei jakinaraztea zigorrak edo neurriak betearazteko orduan esanguratsuak diren gertaerak, eta jarduerak amaitzean, horren berri ematea.

6.6.3. Espetxearen ordezkoko aukerak

- Zigor Kodearen arabera, kasu jakin batzuetan espetxe-zigorren ordezkoko neurriak ezarri ahalko dira.
- Legez ezarritako baldintzak betetzen badira, orokorrean egilearen inguruabarrekin eta zigorren larritasun txikiarekin lotutakoak, pertsona espetxean ez sartzea adostu daiteke. Horren arabera, bere zigor-erantzukizuna beste era batera bete beharko du, esaterako erkidegoaren onerako lan-zigorra betez (Zigor Kodearen 49. artikulua), edo espetxe-zigorra etenda (Zigor Kodearen 80. artikulua eta hurrengoak).

6.6.4. ZKEZ eta emakumeen aurkako indarkeria. GAKOA programa

Eusko Jaurlaritzako doako errehabilitazio-programa da Gakoa, epaiaren zain dauden edo genero-indarkeriaren delituen zioz 2 urtetik beherako zigorren kondena ezarri zaien pertsonen zuzendua; halaber, borondatezko partaidetzara ere zabaldik dago (bere partaideen artean % 2 inguru).

Gero eta sarriago gertatzen da genero-indarkeriaren delituak betearaztean kondenak etetea, eta, ondorioz, beharrezkotzat jo zen genero-indarkeriarekin lotutako delituen ziozko kondena jaso duten gizonak errehabilitatzeko programa zehatz bat, genero-indarkeriaren gaineko tratamenduaren zigor-neurriari erantzuteko, zigorren ordezkoko gisa eta helburu hauekin:

1. Ezagutza pertsonala sakontzea, indarkeria-jarreraren gaineko sentimenduak, pentsamenduak eta jarrerak kontuan hartuta.
2. Jarrera biolentoen gaineko erantzukizuna har dadila lortzea.
3. Jarrera oldarkorrak birbideratzeko estrategiak eskuratzea.
4. Indarkeria-eskaladara eramaten duten dinamikak identifikatzea.
5. Harremanetako indarkeriarik ezarekin eta erantzukizunarekin koherenteak diren jarrerak, gaitasunak eta jokabideak eskuratzea.
6. Biktimarekiko enpatia garatzea.
7. Alkoholaren eta drogen mendekotasunaren edo gehiegikeriaren arazoak jorratzea, konkomitantzia dagoen kasuetan.
8. Mito eta sinesmen sexistak aldaraztea.

Gakoa programak hiru fasetan egiten du lan:

1. Lehen fasean, harreman terapeutikoa ezartzen da terapeutaren eta erabiltzailearen artean, asteroko banakako saioen bidez. Horietan, asko lantzen dira pertsonaren motibazioa eta erantzukizuna.

2. Fase horren ostean, helburu indibidualizatuak planteatzen dira, eta terapeutek erabakitzen dute ea zer den hobe
 - a. banakako esku-hartzearekin jarraitzea edo
 - b. taldeko saioetara pasatzea. Talde irekiak dira, erdi-egituratuak, edukiak eta unitateak lantzen dituztenak. Horren barruan, askotariko ideiak lantzen dira, hala nola gatazkak konpontzeko bideak, jarrera biolentoen aurreko gizarte-erantzukizuna eta enpatia. Batzuetan, terapietan senideek, neba-arrebek edo erasotzaileen bikotekide berriek (halakorik dagoenean) parte hartzen dute. Azken fasea altari eta jarraipenari buruzkoa da. Hasierako helburuak bete direnean jartzen da martxan.
3. Azken fasea altari eta jarraipenari buruzkoa da. Hasierako helburuak bete direnean jartzen da martxan

6.6.5. ZKEZren eta GAKOA programaren kudeaketa

Euskadiko Birgizarteratze Institutua ([IRSE.EBI](#)) ZKZ kudeatzen duen irabazi-asmorik gabeko erakundea da.

6.6.6. Ebaluazioari buruzko datuak. Onurak

EHUko Kriminologiako Euskal Institutuko ikerketa-taldearen arabera, zeinak [programaren ebaluazio-txostena](#) egin baitu, Biktimologiako Euskal Sozietatearen burua den Gema Varonaren zuzendaritzapean, kanpoko lehen ebaluazio hori "esparru teoriko kriminologiko orokor baten barruan garatu da, erasotzaileen tratamenduak bereziki jorratuz eta kuantitatiboa eta epe laburrekoa den horretaz harago joateko asmoz". Ebaluazioaren barruan, programak esku-hartzearen subjektuen, biktima zuzen eta zeharkakoen, justizia-administrazioko profesionalen, zigor-sistemaren eta erkidego hurbilenaren artean duen eragin orokorra aztertu da.

Ikuspegi kuantitatibotik erreparatuta, programa eraginkorra da, eta delituak errepikatzeko tasa % 8 murriztea lortzen du; bestalde, programa hori jarraitzen ez duten erasotzaileen artean % 20koa da tasa hori.

6.7. Deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak (FE)

6.7.1. FE dira

Doako espazio neutralak, segurtasun-berme gorenak eskaintzen dituztenak familiaren nukleoa akordiorik gabe hautsi denean, gatazkak daudenean, tratu txarrak gertatu direnean eta abar. Espazio horietan diziiplina anitzeko talde psikosozialak eta adituak daude, eta une oro zaintzen eta babesten dituzte adingabeko pertsonak. Espazio egokiak dira gurasoek do haurraren tutoretzaz arduratzen direnek epaileak ezarritako trukeak edo bisitak egin ditzaten.

6.7.2. FEren helburuak

- Hurrek beren senideekin harremana izateko duten eskubidea bermatzea.
- Bisiten araubidean ongizatea eta segurtasuna zaintzea.
- Adingabeei beren sentimenduak eta beharrianak askatasunez eta beldurrik gabe adieraztea ahalbidetzea.
- Harremanak hobetzen laguntzea eta gurasoei beharrezko gaitasunak ematea, beren seme-alabekin harremanak izateko gai izan daitezen, zerbitzua ematen duten profesionalen laguntzarik eta ikuskapenik gabe.
- Gurasoei prestakuntza ematea, errespetuan, berdintasunean eta elkarbizitzan oinarrituta hezi ditzaten seme-alabak.

6.7.3. FEren jarduera eta datuak

EAEko FEen datu orokorrak. 2018.

Datu orokorrak	Bilbo	Donostia / San Sebastián	Vitoria-Gasteiz	Portugalete	Barakaldo	Guztira
Adingabeak	466 (35,9%)	392 (30,2%)	227 (17,5%)	134 (10,3%)	80 (6,1%)	1.299
Erabiltzaile helduak	707 (37%)	588 (30,7%)	291 (15,2%)	205 (10,7%)	122 (6,4%)	1.913
Guztira	1.173 (36,6%)	980 (30,5%)	518 (16,1%)	339 (10,5%)	202 (6,3%)	3.212
Familiak	346 (36,9%)	286 (30,6%)	143 (15,3%)	102 (10,9%)	59 (6,3%)	936
Programatutako jarduerak	10.088 (35,7%)	7.956 (28,1%)	5.165 (18,3%)	3.004 (10,6%)	2.062 (7,3%)	28.275
Kexak, iradokizunak eta egoera gatazkatsuak	19 (17,1%)	11 (9,9%)	11 (9,9%)	36 (32,4%)	34 (30,7%)	111

Espedienteen jatorriko epaitegiak EAEko FEetan. 2018.

Espedienteen jatorriko epaitegiak	Bilbo	Donostia / San Sebastián	Vitoria -Gasteiz	Portugalete	Barakaldo	Guztira
Emakumeen aurkako indarkeria	180 (45,3%)	114 (39,9%)	69 (48,2%)	37 (35,9%)	28 (46,7%)	428 (42,5%)
Familia-epaitegiak	85 (21,2%)	69 (24,1%)	59 (41,3%)	51 (49,5%)	26 (43,3%)	290 (28,8%)
Bestelakoak	150 (33,5%)	103 (36%)	15 (10,5%)	15 (14,6%)	6 (10%)	289 (28,7%)
Espedienteak guztira	415 (100%)	286 (100%)	143 (100%)	103 (100%)	60 (100%)	1.007 (100%)

EAEko FEetan aldiaren uneren batean urruntze-aginduak eta babes-aginduak indarrean dituzten familien kopurua. 2018

Idiko uneren batean urruntze-aginduak indarrean dituzten familiak	Bilbo	Donostia -San Sebastián	Vitoria -Gasteiz	Portugalete	Barakaldo	Guztira
Emakumeari buruz	4 (3,1%)	5 (5,8%)	---	1 (3,2%)	2 (8,7%)	12 (4,1%)
Gizonari buruz	122 (96,1%)	80 (93%)	26 (96,3%)	28 (90,3%)	16 (69,6%)	272 (92,5%)
Mutualitatea	1 (0,8%)	1 (1,2%)	1 (3,7%)	---	---	3 (1%)
Adingabeak babesteko aginduak	---	---	---	2 (6,5%)	5 (21,7%)	7 (2,4%)
Aginduak guztira	127 (100%)	86 (100%)	27 (100%)	31 (100%)	23 (100%)	294 (100%)

6.7.4. FE Euskadin

- Bilbo
- Donostia
- Gasteiz
- Barakaldo
- Portugalete
- Durango
- Tolosa
- Gernika

Une honetan, etorkizunean Irunen, Zumarragan eta Amurrion FE berriak ezartzeko lanak abian daude.

6.7.5. FEen 2018ko jardueraren memoria



7. Egoeraren diagnostikoa

7.1. Baliabide judizialei eta lege-laguntzari buruzko 2016ko ebaluazioa

2006. urtean, Emakunde, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 51.2 artikuluko agindua betez, ebaluatzen hasi zen, aldizka, ea erakundeek zer-nolako erantzuna ematen zuten etxeko tratu txarren egoeretan, hainbat arreta-eremutan. Agindu hori betez, 2007. urtean, baliabide polizialak, judizialak eta lege-laguntza ebaluatu ziren, horiek baitira EAeren eremuan emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean erantzuna ematen duten erakundeak. 2016an, **baliabide judizialei eta lege-laguntzari buruzko ebaluazio** berri bat egin zen. Agiri hau hasierako diagnostikoa da, kontuan hartuta bere edukia, egiteko sistematika, eta hura egitean Administrazio Justizian emakumeen aurkako indarkeriaren biktimekin lan egiten duten 99 pertsonari egin zitzaizela inkesta edo elkarriketa.

Ebaluazioaren ondorio esanguratsuenak honako hauek dira:

Sistema judizialaren egoera eta efikaziari buruzko orokorrak

- **Hobekuntzak** egon dira:
 - ✓ erkidegoko legezko esparrua garatu da, genero-indarkeriaren ikuspegia giza eskubideen arloko eta estatu-mailako azaro gisa ulertuz eta adingabeak kontuan hartuz
 - ✓ kontzientziazio eta prestakuntza handiagoa egon da profesionalen artean
 - ✓ eragile juridiko berriak sortu dira; besteak beste, ABIUak eta EGIE berria, eta
 - ✓ lege-laguntzaren eta haren prestakuntzaren doakotasunaren irismena zabaldu eta areagotu da.
- **Ez dago baliabide ekonomiko nahikorik.**
- **Giza baliabideak eta baliabide materialak ez dira aski** arazoari erantzun egokia emateko; ondorioz, lana eta emozioa kargatu egiten dira.
- Oraindik ere beharrezkoa **da profesionalak lortu eta horiei prestakuntza emateko lana** zabaldu eta sakontzea.
- **Kontraesanak eta oztopoak daude ezarritako prozeduretan eta lege-esparruan, epaileen jarduteko gaitasunaren kalterako direnak.**

Lege-esparrua betetzeko mekanismoak, estaldura eta ikuspuntua

- **Sistema judiziala batez ere biktinarioen eskubideak bermatzera bideratuta dago.**

- Erantzun judizialak ez du biktimaren ongizatea bermatzea xede nagusi. Genero-ikuspegia txertatzen asko aurreratu bada ere, ezin da esan sisteman txertatuta dagoenik (biktimak lekuko gisa tratatzen dira).
- Zigor-arloko sistema judizialak ere ez du bermatzen biktimak parte har dezakeenik ikerketa bat edo prozedura judizial bat abiatu behar ote den erabakitzen, eta, era berean, ez du erraztasunik jartzen frogaren karga sinpleagoa izan dadin. Izan ere, praktikan kondenatu egiten dira emakume biktimak, non eta lesioak eta mehatxuak bi alderdien artean egiten diren, defentsa bera aztertu gabe.
- Ez dago erreparatzeko mekanismo publiko efikazik.
- Doako defentsa, ofiziozko txandan, irizpide murritzailerekin aplikatzen da arlo zibilean, esate baterako banaketa eta dibortzioetan.

Oztopoak prozeduretan

- **Urratzeak eta babes-aginduak.** Beste delitu bat egiten ez bada, ez da neurri berriak ezartzeko beste prozedura bat abiarazten. Baliteke biktimak abisurik ez jasotzea erasotzaileei baimenak eta hirugarren gradua ematen zaizkienean eta kaleratzen direnean.
- **Deklaratzeko lekapena.** Prozedura Kriminalaren Legearen 416. artikulua kontrara ez deklaratzeko aukera ematen du, baldin eta lekukoaren eta akusatuaren artean ahaidetasuna badago, eta horrek distorsioak sortzen ditu. Bere isiltasunak kondenatua absolbitzea eragingo du maiz. Deklaratzeko lekapena aplikatu ahal izateko arrazoiak hainbat izan daitezke: erasotzailearen eskutik beste mehatxu edo bortxa bat jasotzea, beste aukera bat emateko erabakia, bizikidetzat berriz hasteko erabakia, emozio-mailako mendekotasuna, mendetasun ekonomikoa, etorkizunari beldurra, erasotzailearen erreakzioari beldurra eta abar.
- **Biktinarioaren bisita-eskubideak.** Amaren zaintzapean dauden adingabeei bisitak egiteko araubidearekin jarraitzen dute erasotzaileek, aitari bisitak eta urruntze-aginduak uztartuz, bisita horiek FE batean egiten direnean ere; prozedura hori arriskutsua eta inkoherentea da.

Epaitegien egoera

- Kasuen dispartzio judiziala altua da. Eskumenak epaitegi-motaren arabera banatzea ez dago pentsatuta genero-indarkeriaren kasuetarako; kasu horiek oso ezaugarri berezituak dituzte, eta auzi ugari biltzen dira horietan, askotarikoak.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiek eta epaite bateragarriek eskumen askoz gehiago hartu dituzte, horietan sartu direlako zenbait delitu, hala nola urratzeak, ohorearekin, intimitatearekin edo norbere irudiarekin lotutakoak, "ziberjazarpena" eta beste batzuk — esaterako, irain egitea eta sekretuak agerraraztea —, betiere, biktima ustezko erasotzailearen bikotekidea edo bikotekide ohia izan bada.
- **Langileak.** Epaitegietan desorekak daude horietan aritzeko dauden langile-kopuruaren eta benetan egiten duten jardura-mailaren artean. Eta ez bakarrik funtzionario-kopurua egokitzeari dagokionez, baizik eta bajak eta baimenak betetzeko prozesu efikazei dagokienez ere bai.
- **Espazioak.** Oro har, ez dago nahikoa leku itxarongelak behar bezala antolatzeke eta behar beste komun jartzeko, biktimen intimitatea eta babesa bermatzeko adina. Horrek ibiltzeko askatasuna mugatzen dio biktinari, baldin eta ikertua atxilotuta ez badago. Vitoria-Gasteizko ABIUen eta EGIEn baldintza kaxkarrak nabarmendu dira.

Operadore juridikoen eta lege-laguntzako profesionalen egoera.

- Presio eta erantzukizun handiarekin lan egiten da. Konpromisoak eta enpatia akidura-maila altua eragiten dute. Sistemak epaitegietan diharduten profesionalen esku uzten du biktimen segurtasuna eta ongizatea bermatzeko erantzukizuna, eta, beraz, horiek ez dute horri buruzko ez ikasketarik ez prestakuntzarik, ez eta aitorpen-sistemarik, motibaziorik eta/edo zaintzarik ere.

Gaikuntza eta prestakuntza

- Genero-indarkeriaren eta genero-ikusegiaren ezagutza handiagoa nabari da.
- Hutsuneak ageri dira, besteak beste tratatu desegokiak, arazoaren dimentsioarekiko ulermen falta, eta erabakiek biktimengan dituzten ondorioak.
- Sistema judizialeko eta beste laguntza-zerbitzu batzuetako langileen zabaltasunaren ondorioz, etengabeko ahalegina egin behar da prestakuntza-eskaintza zabaltzeko eta areagotzeko.
- Prestakuntza espezifiko ez da ezinbesteko baldintza epaitegi-tako lanpostuetan sartzeko edo egoteko (Justizia Administrazio-ko letraduna, administrazio-ko langileak...), epaileen kasuan izan ezik (kasu horretan ere, baldin eta epaitegi bateragarriak badira).
- Indarkeriaren arloan ordezkari diren fiskalek soilik egiten dituzte Estatuko Fiskaltza Nagusiak genero-indarkeriari buruz urtero antolatzen dituen ikastaroak.
- Halaber, beharrezkoa da genero-indarkeriaren gaineko prestakuntza espezifiko ematea TPJri eta ABIUei.

7.2. EAE-n indarkeria jasaten duten emakume eta neskatuei arreta emateko sistema hobetzeko hausnarketa kolektiboko prozesua

2014az geroztik, Emakunde NBErekin lankidetzan ari da, gutxieneko kalitate-estandarrak diseinatzeko genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen arretan, "Indarkeria jasaten duten emakume eta neskatuentzako oinarritzko zerbitzuei buruzko programa bateratu orokorraren" esparruan.

2016. urtearen amaieran, Emakundek lan-prozesu bat sustatu zuen EAE-n, estandar horiek hautemateko. Halaber, prozesu bat abiarazi zuen, indarkeria jasaten duten emakumeentzako arretan inplikaturik dauden EAEko hainbat agenteei NBEren materialaren gainean ekarpenak egiteko aukera emateaz gain, EAE-n estandar horiekin lotuta dagoen errealitateari buruz kolektiboki hausnartu ahal izateko aukera emateko. Hori guztia, arreta-sistema osoa bat etor dadin EAE-n emakumeen aurkako indarkeria jasaten dutenei arreta emateko sistema etengabe hobetu eta aldatzeko ikaskuntzarekin eta esku hartzeko oinarritzko prozedura eta printzipioekin.

Eremu judizialarekin eta koordinazioarekin lotuta (eremu horretan ere eraginik) lan kolektiboko saioetan identifikatu ziren "erronkak" edo kezkek honako hauek dira:



POLIZIA ETA JUSTIZIA

- *Sexu-erasoen kasuei bereziki erreparatu behar zaie, lege-laguntza genero-indarkeriaren kasuetan bezala jasotzen dutela bermatzeko (genero-indarkeria deritzo bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeriari).*
- *Krisi-egoeretan, zailtasun batzuk daude landaguneetan lege-laguntza (ofiziozko txandako abokatua) eraginkorra izan dadin.*
- *Hobetu beharra dago genero-ikuspegiaren gaineko prestakuntza eta emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko sentsibilizazioa (aurreiritziak eta estereotipoak ezabatu) eragile juridikoen artean, emakumeen lekukotzak zalantzan jar ez daitezen eta biktimizazio bikoitzik sor ez dadin.*
- *Trebakuntza handiagoak ezkutuko indarkeria-kasuek identifikatzen lagun lezake. Ohartarazi denez, bereiztea eta indarkeria-egoeratik irtetea erabakitzen duten emakume batzuei, salaketa jarri gabe, bitartekaritza egiteko aukera eskaintzen ari zaie, nahiez eta legez debekatuta dagoen indarkeria-kasuetarako.*
- *BLZk laguntza ematen du EAE osoan, baina ez dauka larrialdietarako txandarik.*
- *Itzulpen-enpresek ez dute bermatzen genero-ikuspegia, eta, beraz, handicap osagarri bat eragiten zaie beste hizkuntzaren bat hitz egiten duten biktimei.*
- *Zerbitzu batzuetan (esaterako, burutzan), errotazio-maila altua da, eta, neurri batean, indarkeria-epaitegietan lan egiteko aski aitortuta ez dagoen espezializazioa eskatzen duelako izan daiteke (lan-bolumen handia, giza baliabide eta baliabide ekonomiko urriak...).*
- *Garrantzitsua da botere judizialaren barruan barne-koordinazioa indartzea, irizpide eta zuzentzarako berberak jarraitzen direla bermatze aldera.*
- *Sarritan, eremu judizialeko langileak nahiko "bakarrik" daude erabakiak hartzean, eta beti ez da erraza izaten nola jokatu jakitea.*
- *Datuak erregistratu eta kontsultatzeko sistema hobetu behar da, epaiei eta kautela-neurriei buruzko informazioa eta horien betearazpenari buruzko informazioa eguneratuago egoteko ahalegina eginda.*
- *Eremu judizialean datuen babesa hobetu daiteke, eta, horretarako, sistema zibileko "arrakala" batzuk berrikusi (esaterako, norbaitek pertsona baten kokapenaren berri izan dezake zerbait erreklamatzeko badio... eta, horrela, konfidentzialtasunaren gaineko babes-neurriak "gainditzeko" ditu, nahiz eta zigor-sistemak hori eskaintzen dien genero-indarkeriaren biktimei).*
- *Nahiz eta EAEn poliziaren eremutik sexu-indarkeriaren kasuek erregistratzen diren emakumeen aurka, etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren kasuek gain (1/2004 Lege Integralaren arabera), eta neurriak hartu diren horien seme-alaben datuak erregistratzen hasteko, estatu-mailan ez dago alderaketak egiteko daturik.*
- *Eremu judizialean ere bizikidetzaren zioz biktima izan diren adingabeei arreta emateko trebakuntza aski duten langileen falta nabari da.*
- *Polizia-eremutik, seme-alabentzako segurtasun-neurriak orientatzeko irizpide zehatzen falta nabari da.*
- *Familia-elkarguneetatik egiten den lana berrikusi egin behar da, genero-ikuspegi eta sentsibilizazio gehiago bermatzeko genero-indarkeriaren gainean, esku-hartzean.*
- *Berrikusi behar da zer ekipamendu judizial dauden biktimak eta erasotzaileak gune berean topo egin behar ez dezaten, baita adingabeei arreta egokia eman dakien ere.*
- *Instrukzio-fasea arindu daiteke (8 eta 10 hilabete artean luzatzen da), eta lehentasunen agenda ezarri.*
- *Garrantzitsua da biktimek atzera egiteko duten eskubidea errespetatzea (ahalduntze-printzipioa), eta, beraz, ez da komeni lekupenerako eskubidea ezabatzea.*
- *Garrantzitsua da fiskaltzak arreta ematea zigor-neurriak betearazten ote diren jarraitzeko orduan.*
- *Neurri zibilen despenalizazioak sarritan eragozpen gehiago sortzen dizkie biktimei (erasotzaileak ez badu ezarri dena betetzen, emakumeak erreklamazio-prozesuak hasi behar ditu, eta horrek denbora, dirua... eskatzen du).*
- *Emakumeek egoitza judizialean beren istorioa kontatzeko ematen duten denbora urria dela uste da.*
- *Biktimarekin ondoren komunikatzeko prozedura hobetu egin daiteke. Izan ere, eskubidea dauka erasotzailearekin lotuta dagoen ezein prozedurari buruzko informaziorik ez jasotzeko...*

KOORDINAZIOA ETA GOBERNANTZA

- *Agenteen artean ez dute informazioa behar beste trukatzeko, nahiz eta horrek aukera emango lukeen arriskuaren ebaluazio osoa eta dimentsio anitzekoa egiteko.*
- *Krisi-egoeretan, agente desberdinek esku hartzen dute, eta komenigarria da horiek guztiek informazioa emateko modua zaintzea, osoa eta argia izan dadin, kontuan hartuta biktimaren egoera emozionala, hura zalantzan jarri gabe, prozesuaren ondorioak eta inplikazioak aipatuz, eta adingabeak ahaztu gabe.*
- *Batzuetan, ahalduntze-printzipioa eta segurtasun-printzipioa ez datoz bat. Horrenbestez, polizia-eremutik eta eremu judizialek ofiziozko jardura gailentzen da, baita emakumeak salaketa jarri nahi ez duen kasuetan ere; gizarte-zerbitzuen eremutik, bestalde, ikuspegi desberdina aplikatu ohi da. Garrantzitsua da baloratzea krisi-egoera guztiak ez direla berdin tratatzen (polizia-larrialdia versus gizarte-larrialdia) eta elkarrekin hausnartu behar dela emakumeen aurkako indarkeria-kasu guztiak ez judizializatzeko aukera (modua).*
- *Igartzen da konfiantza eta elkarrekiko aitortza falta dela gizarte-zerbitzuetako profesionalen eta eragile juridikoen artean. Sarritan, ez da ezagutzen azpisistemen funtzionamendua. Gizarte-zerbitzuetatik biktimekin esku hartzen duten profesionalak informazio baliagarria dute prozesu judizialetan gutxiegi erabiltzen den (kutsatu egin daitekeela uste da) egoeraren diagnostikoa buruz (denboran zehar egindako lan sakon eta etengabearen emaitza). Era berean, epaileei eta fiskalei dagokie gizarte-konkista garrantzitsuak eragiten dituzten bermeak zaintzea eta neutraltasun-printzipioa bermatzea.*
- *Komenigarritzat jo da epaitegietako agente eta ekipo psikosozialen arteko komunikazioa areagotu eta hobetzea, horiek ikuspegi zabalagoa izan dezaten.*
- *Fiskalen eta epaileen koordinaziorako figurarik ez dagoenez, zailagoa da botere judiziala gainerako eremu eta erakundeekin koordinatzea.*
- *Eremu judizialaren eta hezkuntza-eremuaren arteko koordinazioa hobetu behar da datuen konfidentziasunaren gainean (sarritan, gatazka sortzen da aita bere seme-alaben helbide berria ezagutzeko duen eskubidearen eta amaren eta bere seme-alaben segurtasun-printzipioaren artean).*
- *Esparru arauemaileak ez du orientazio nahikoa argirik ematen esku-hartzearen gainean, esaterako printzipioen artean talkak daudenean. Ondorioz, zaila da bateko eta besteko agenteek ikuspegi bateratua izatea protokoloak betearazteko orduan.*
- *Nabaria da errealtatara egokitutako protokolo malguagoak falta direla, zehaztapen-maila handiagoa eduki eta egoera bakoitzean nola jokatu behar den zehazteko.*
- *Indarkeriaren 2004ko Lege Integralean emakume biktimen gainean egiten den definizioa murriztegia dela uste da (bikotearen edo bikote ohiaren eremuko indarkeria eta etxeko indarkeria), eta biktimaren izaera lortzeko egungo baldintzetan ez dira eskubide berberak bermatzen ari biktima guztientzat.*
- *Arazoaren magnitudea kontuan hartuta, erakundeek apustu handiagoak egin behar dituzte prestakuntzaren, inbertsio ekonomikoaren, ebaluazioaren eta hedapenaren arloan. Aurrera egin behar da erakunde eta sail bakoitzak arazo hau ezabatzeko egiten duen inbertsio zehatzari buruzko datuak bildu eta hedatzeko orduan.*
- *Garrantzitsua da arretarekin (zerbitzuak, programak...) egiten diren ebaluazioetan erabiltzaileek ere parte hartzea. Halaber, erreklamazioen sistema erraz eta argia falta dela nabari da, kexak kudeatu ahal izateko. Emakumeei ez zaie ahotsik ematen.*
- *Gazteen eta nerabeen artean indarkeria prebenitzeko, ahalegina indartu behar da, batez ere hezkuntzaren eremuan.*
- *Informazio zehatzagoa eta argiagoa edukiz gero eskuragarri dauden baliabideei eta horien ezaugarriei buruz eta informazio hori agenteen artean zabalduz gero, hobetu egingo litzateke koordinazioa.*
- *Interesgarria litzateke gizarte zibileko erakunde eta instituzioen artean harreman eta aitorpen handiagoa lortzeko aurrera egitea, lan handia egiten ari baitira (erakundeak iristen ez diren emakumeekin), batez ere ahalduntzearen eremuan.*
- *Aurrera egiten jarraitu behar da informazioa biltzeko irizpideak bateratzeko orduan, biktimen arretarako datuen tratamendu estatistikoa bermatze aldera.*

7.3. Zerbitzuek beren funtzionamenduari buruz esaten digutena

7.3.1. Sistema eta jarduera judiziala

ZERB.	NEGATIBOA
ABIUak	Epaitegietan ematen duten denboragatik kexu dira biktimak (denbora lar bulegoetan, denbora gutxi aitorpena egiten)
TPJak	
BLZ	- Hizkuntza eta sistema judizial konplexua - Espazio judizial hotza, ezezaguna, konplexua - Mugak, epaitegietan informazio eskuratu eta harremanak ezartzeko (ez dago aurkezpen-protokolorik, eta langileen joan-etorria handia da)
ZKEZ-GAKOA	Prestakuntza falta da biktimekin eta biktimarioekin lan egiteko ("pseudo prestakuntza" asko dago, baina gradu bat beharrezkoa litzateke)
FE	- Nahiz eta FEak aldi baterako arretarako asmoz sortu ziren, epaiek ez dute denbora-mugarik jartzen - Epaiak ez dira aski argiak; interpretazio-zalantzak eragiten dituzte - FEko kideei epaiketarako egindako hitzordua instrumentazioa da. Komenigarria litzateke ez egitea lekuko gisa jarduteko deirik, parteak eskatuta. Bidalitako txostena berrestera mugatu beharko lirateke - Ez dago irtenbide garbirik adingabeak hitzartutako bisitetara ez doazenerako



7.3.2. Egiten den jardueraren edukia

ZERB.	POSITIBOA	NEGATIBOA
ABIUak	Bizkaian eta Gipuzkoan, ABIUk lekukotzaren balorazioa egin badu, aurrez eraturakoa ere egingo du (ondoren eskatzen bada, zibila izan arren)	
TPJak	- Bizkaian eta Gipuzkoan, baldin eta TPJk aurrez eraturako proba egiten badu, lekukotzaren balorazioa ere egingo da (zigor-arlokoa izan arren) - Hala egin dadila Araban	
BLZ	- Biktimen Estatutuak legitimatuta daude - Ezagutzen dituztenek balorazio ona egiten diete - NBERen estandarrak betetzen dituzte, eta nazioarteko aitortpena jaso dute (Turkiako Gobernua) - Biktimek beren lanaren balorazio positiboa egiten dute	- Ez dute egiten asebetetze-inkestarik - Datuak ebaluatu behar dira - Memoriak hobetu behar dira
ZKEZ-GAKOA	Emaitza bikainak dituen programa: delitua errepikatzeko tasa % 8ra murriztea lortzen du; programa hori betetzen ez duten erasotzaileen artean % 20koa da tasa (EHUko Kriminologia Institutuak egindako kanpo-ebaluazioaren arabera)	
FE	Orokorrean, biktimak babestuta sentitzen dira, txostenetan saioaren jarraipena datu objektiboekin egiten delako	- Biktimek ez dute ulertzen babes-agindua edukitzea eta biktimarioentzat bisita-araubidea baimentzea - Biktima batzuentzat sistema gaiztoa da: FEak daudenez eta oso ondo funtzionatzen dutenez, biktimarioei bisita-araubidea ahalbidetzen zaie - Biktimentzat gogorra da FEak esatea biktimarioak bisitan zehar izan duen jarrera normaltasun-parametroen barruan sartzen dela
AJG	- Biktimarekiko tratua hobetu egin da - Biktimek ez dute justifikatu behar ez dutenik baliabiderik - Abokatuek txanda honetan dedikazio eskusiboa dute	Askok tardatzen dute iristen. Batzuetan telefono bidezko azalpen bat baino ez da ematen

7.3.3. Eskuragarri dauden baliabideak

ZERB.	POSITIBOA	NEGATIBOA
ABIUak	Prestakuntza espezifikoa antolatzeke edo eskuratzeko erraztasuna dute	- Lan-poltsetatik sartzen direnek prestakuntza-arazoak dituzte "Autozaintzako" prestakuntza eta jarraipen psikologikoa behar dira - Espazio-arazoak Araban. EZ dute Gesell kamera, baina TPJkoa erabiltzen dute; bulegoetan soinu-arazoak dituzte
TPJak	Prestakuntza espezifikoa antolatzeke edo eskuratzeko erraztasuna dute	
BLZ		Baliabide urriak
EIKZ	EJIErekin lanean dihardu, datu-base hori estandarizatzeko	Datu-basea egiteko laguntza informatikoaren beharra
ZKEZ-GAKOA		- Baliabide urriak. Itxarote-zerrenda luzea. 2 urteko itxarotedenbora, epaiak ezartzen direnetik (orain, 2014ko delituak dituzten pertsonekin ari dira lanean) - Interesgarria litzateke erasotzaileari salaketaren unean eman ahal izatea arreta (emozioei eustea)
DLJ	Abokatuen finantzaketa hobea da, beste txanda batzuen aldean	- Baliabide urriak. Baliabideak bikoiztu behar dira - Prestakuntza eta akreditazioa homologatu eta hobetu behar dira

7.3.4. Zerbitzuak eskaintzeko lekua

SERV.	POSITIBOA	NEGATIBOA
ABIUak		Esparru judizialen artean, zerbitzua ez da simetrikoa. Zerbitzu ona hiriburuetan eta Barakaldon. Gainerako esparru judizialean ez dago espezialistarik, informazio egokia ematen duenik. Gainerako esparru judizialeko biktimek lekualdatu beharra dute
TPJak		
BLZ		
DLJ	24 orduko arreta 902103908 telefono-zenbakian	

7.3.5. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimari buruzko informaziorako sarbidea

ZERB.	NEGATIBOA
ABIUak	- Ez dago TPJrekin partekatutako espediente edo informaziorik - TPJren bestelako aplikazioa - Kasu batzuetan, EGIE bera da ez duena informazioa partekatu nahi TPJrekin, "kutsadurarik" egon ez dadin (Araba), eta beste batzuetan alderantziz (Bizkaia)
TPJak	- Ez dago ABIUrekin partekatutako espediente edo informaziorik - ABIUen bestelako aplikazioa - Fiskaltzak informazio batzuk eskuratzeko aukera mugatzen dio - Kasu batzuetan, EGIE bera da ez duena informazioa partekatu nahi ABIUrekin, "kutsadurarik" egon ez dadin (Araba), eta beste batzuetan alderantziz (Bizkaia)
BLZ	- Datuak babestearen ziozko zailtasunak - Informazioa eskatzen diete organo judizialei, baimen informatuko agiri baten bidez. Batzuetan hori ez da aski. Beste batzuetan idatziz egiten da eskaria. Azkartasun gutxi. Kanal bat behar da biktimari buruzko informazio zuzena ezagutzeko - Boluntariorak funtzionatzen du
EIKZ	- Informazioa ez denean osoa eta beharrezkoa dutenean, zuzenean jotzen dute epaitegietara: batzuetan zuzenean ematen diete, beste batzuetan ez diete ematen... - Ez dute epai betearazleei buruzko daturik jasotzen, babes-aginduen edo segurtasun-neurrien indarraldia ezagutzeko...
ZKEZ-GAKOA	Datu-base on bat edukitzea komenigarria litzateke (horretan lanean ari dira), eta beste zerbitzuetatik pasatu izanari buruzko informazioa falta zaie (BLZn bezala, "datuen pasarela")
FE	- FEra helarazten den espediente judizialari buruzko informazioa ez da nahikoa (informazioa falta zaie beren lana ondo egiteko) - Informazioa falta zaie indarrean dauden edo ez dauden urruntze-aginduei buruz. Ez dute informaziorik jasotze kondenen indargabetzei eta likidazioei buruz (parteetako baten fitxa bidez jakin ohi dute)

7.3.6. Biktima eta biktinarioa ez elkartzea

ZERB.	POSITIBOA
ABIUak	Hitzorduak ezartzean, kontuan hartzen da elkartu ez daitezela
TPJak	
FE	FE bakoitzak bere prozedurak ditu biktima eta biktinarioa elkartu ez daitezen (SMS bidalketa, telefono-deia, biktinarioen kontrola bulegoan...)

7.3.7. Barruko beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa eta ezagutza

ZERB.	POSITIBOA	NEGATIBOA
ABIUak	Gainerako zerbitzuen funtzionamendua ezagutzen dute	- Etengabeko harremana dute TPJrekin, baina komenigarria izango litzateke koordinazio informaletik epaileek babestuko koordinazio formalera igarotzea - Beharrezkoa litzateke BLZrekin koordinatu eta gehiago jakitea
TPJak	Gainerako zerbitzuen funtzionamendua ezagutzen dute	- Etengabeko harremana dute ABIUekin, baina koordinazio informaletik epaileek babestuko koordinazio formalera pasatzea komenigarria litzateke - Beharrezkoa litzateke BLZrekin koordinatu eta gehiago jakitea
BLZ	Koordinazio handia du DLJko letradunekin	- Administrazioko gainerako zerbitzuen ezagutza urria da. Gaia judizializatuta egoteak ez du esan nahi gaia amaituta edo bukatuta dagoenik edo zailtasun berriak sortuko ez direnik - Balorazio urria duen zerbitzua - DLJren hitzarmen berrian beste zerbitzu batzuekiko harremanari buruzko erreferentziaren bat sartu beharko litzateke
EIKZ	BLZrekin harreman eta ezagutza etengabe eta bizia du	Ez du ezagutzen beste zerbitzu batzuekiko jarduera-fluxua
ZKEZ-GAKOA	Ezagutzen dute BLZ, EIKZ, DLJ eta ABIUen jarduera.	Ez dute ezagutzen TPJ, eta ez dute harekin harremanik (salbuespen kasuetan ezik)
FE	Harremana dute organo judizialekin eta TPJekin.	Beharrezkoa da koordinazio handiagoa BLZrekin eta EIKZrekin, neurri guztien informazioa helarazteko

7.3.8. Kanpoko beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa eta ezagutza

ZERB.	POSITIBOA	NEGATIBOA
ABIUak		Beharrezkoa izango litzateke kanpoko beste zerbitzu batzuk ezagutzea (foru-aldundietakoak eta udalik garrantzitsuenetakoak)
TPJak		Beharrezkoa izango litzateke kanpoko beste zerbitzu batzuk ezagutzea (foru-aldundietakoak eta udalik garrantzitsuenetakoak)
BLZ	- Harreman oso biziak Bilboko Udaleko berdintasun-arloarekin - Harremanak ZUTITUrekin, hots, sexu-erasoen eta tratu txarren ustezko kasuetan familia esku-hartzerako arreta psikologikoa ematen duen BFAren programa eta genero-indarkerian espezializatutako arreta psikosoziala ematen duen AFAren programa kudeatzen dituen enpresarekin	- Ez da harremanak egituratzen ari foru-aldundietako eta udaletako gizarte-zerbitzuekin - Zeharkakotasuna falta da - Gutxi ezagutzen eta gutxi baloratzen den zerbitzua
EIKZ	Informazioa ematen die gainerako administrazioei biktimarioen egoerari buruz	JABESera sarbidea dute, baina informazio txarra dago neurriei buruz (normalean, prozedura judizialekara baino ez dira sartzen)
ZKEZ-GAKOA	Harremana dute lotutako beste programa batzuekin (AMIKEKO, hirugarren mailako zigorra duten pertsonen genero-indarkeriaren arretarako programan)	- Koordinazio hobea eta handiagoa behar dute gizarte-zerbitzuekin - Harremanak estutu behar dituzte Osasun Mentaleko Zerbitzuekin
FE	Informazioa bidaltzen dute BFAko genero-indarkeriaren behatokira	

7.4. Biktimek esaten dutena

7.4.1. “Entzute-ariketa”, 12 biktimekin egindakoa

Laguntza

- BLZk aukeratutako 8 biktima.
- Hainbat elkartetako 4 biktima.

Saioaren helburua

- Zuzenean ENTZUTEA.
- Sailak ematen dituen zerbitzuekiko eta organo judizialekiko harremana nola bizi izan duten azaltzea, eta zerbitzu horiek eta horiekiko harremanak hobetu ahal izateko proposamenak igortzea.

Saioaren balorazioa

- Ezinbesteko saioa, edozein erantzule politiko edo funtzional edo eragile juridiko fenomenoan koka dadin eta biktimekin enpatizatu dezan.
- Beharrezko prozesua, biktimek entzuten zaiela senti dezaten.
- Balio terapeutiko altuko bilera biktimentzat (batzuk besteei entzutea, beren burua besteen ispiluetan islatuta ikustea, bakarrik ez daudela sentitzea...).
- BLZren lan ona hautaketan eta esku-hartzeen babesean, beharrezkoa izan den aldi bakanetan.
- Errealitatearen isla

Ondoriorik esanguratsuenak. Beharrezkoa da

- Benetako espezializazio handiagoa
- Enpatia-maila altuagoa
- Ezagutza-maila altuagoa
- Erakundearteko koordinazio altuagoa
- Argi geratzea arazoa ez dela konpontzen urruntze soilaz
- Entzun egin dakiela, norbanakoak direnez gero
- Beren bizitza berreraiki dezatela (baliabideak indartu)
- Biktimak bainoago, bizirik irten diren pertsonak direla azpimarratzea

Baieztapen errepikatuak

- “*Hau ez da inoiz amaitzen*”
- “*Gure seme-alabak dira garrantzitsuena, eta beti ez daude babestuta*”

7.4.2. Beren beharrizanak eta oztopoak

[Bizkaiko landa-ingurunean genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek laguntza, arreta eta justiziako zerbitzu zein prestazioetarako benetako sarbidea izateko dituzten beharrizanak eta oztopoak identifikatzeko txostenean](#), ARGITUZek egindakoa BFAko Gizarte Ekintza Sailerako, 2015. urtean, emakumeen aurkako indarkeriaren 26 biktimari egin zitzaizkien elkarrizketak.

Nahiz eta azterketaren helburua beste bat izan, interesgarria iruditzen zaigu bere pertzepzio eta beharrizanetako batzuk jasotzea:

SALAKETAREN UNEKO BEHARRIZANAK	
Azken erasotik hurbil dagoen unea da, prestaketa psikologikorik gabea eta laguntza gutxi edo bat ere ez duena. Zailtasun handia eragiten du informazioa ulertzeko orduan, eta zigor-prozeduraren alderdi orotan, bere egoera emozionalaren ondorioz. Ez dirudi egoera hori nahikoa kontuan hartzen dutenik esku hartzen duten instantziek.	Informazio argia
	Laguntza
	Babesa
EREMU JUDIZIALA	
Prozesu zaila , orokorrean azken erasoa hurbil dagoelako eta jasandako indarkeria kontatu behar delako, baina baita eremu judizialean identifikatu diren beste oztopo batzuen ondorioz ere.	
Emakumeen eskubideak eta beharrizanak prozesuan zehar	Errespeturik gabeko tratua
	Espazio judizial hotza, ezezaguna, konplexua
	Hizkuntza judizial konplexua
	Konfrontazioa erasotzailearekin
	Prozeduren dispertsioa
	Itxarote-denbora luzeegia epaitegian salaketa jartzeko egunean eta denbora gutxi aitorpena egiten
	Atzerapenak prozeduran
Prozesuaren emaitza	Erabaki judiziala —edo erabaki horren betearazpena— ez zen egokitu justiziarengandik espero zuten horretara
Erreparazioa egongo dela jotzen da, baina gutxitan lortzen da	Osoko errekupeazioa
	Kaltearekin proportzionala den ordaina
	Indarkeria ez errepikatzeko bermeak
Indarkeria ez errepikatzeko bermeak	Babes eraginkor falta
	Seme-alaben eskubideen babes judiziala



Erasotzailearekin seme-alaba adingabeak edukiz gero, seme-alaben eskubideen babesarekiko kezka, aita erasotzailearekin duten harremanak eragin diezazkien kalteen aurrean

ABOKATU-LAGUNTZA

Abokatuen laguntzaren kalitatea, tratuari eta dedikazioari erreparatuta

Tratu desegokia

Dedikazio urria

Espezializazio-faltak: aurreiritziak egotea eta egoerak testuingurutik ateratzea

Indarkeria matxistaren era askotarikoei buruzko ezagutza falta da

Aurreiritziak daude erasotzaileek beren seme-alabekin harremana izateko duten eskubideari buruz

BLZ eta EIKZ

Esparru judizialen artean, zerbitzua ez da simetrikoa. Zerbitzu ona hiriburuetan eta Barakaldon. Gainerako esparru judizialetak biktimek lekualdatu beharra dute

Erantzuteko zailak diren gero eta igurikimen gehiago dituzte

Ezagutzen badituzte eta harremanetan jartzen badira, erreferentzia nagusi bihurtzen dira, eta esker oneko agertzen dira

ABIUak eta TPJak

Esparru judizialen artean, zerbitzua ez da simetrikoa. Zerbitzu ona hiriburuetan eta Barakaldon. Gainerako esparru judizialetak biktimek lekualdatu beharra dute

Hasieran ez dute informazio aski horien izateari eta xedeari buruz

Antzeko proba eta elkarrizketak egiten dizkiete antzeko beste profesional batzuek. Ez da biktimizazio bikoitza saihesten (prozedura desberdinetarako egin arren)

FEak

Biktimek ez dute ulertzen babes-agindua edukitzea eta biktimarioentzat bisita-araubidea baimentzea

Biktima batzuentzat sistema gaiztoa da: FEak daudenez eta oso ondo funtzionatzen dutenez, biktimarioei bisita-araubidea ahalbidetzen zaie

Biktimentzat gogorra da FEak esatea biktimarioak bisitan zehar izan duen jarrera normaltasun-parametroen barruan sartzen dela

Orokorrean, biktimak babestuta sentitzen dira, txostenetan saioaren jarraipena datu objektiboekin egiten delako

8. Jarduera-plana

8.1. Eremuak eta helburuak

EREMUA	DESKRIBAPENA	HELBURUAK
Lankidetza	Beste erakunde batzuekin eta kontrol-organoekin (Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa) koordinatutako jarduerak	- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen arreta hobetzeko beste sail eta erakunde batzuekin egiten dugun jarduerak zehaztea eta horiekiko harremanak areagotzea - Kontrol-organoen erabakien aurreko erantzuna hobetzea
Organoak eta jarduerak judizialak eta fiskalak	JAKo epaile, fiskal eta letradunekin batera lan egitea, EGIEren funtzionamenduari buruzko proposamen bateratuak egiteko orduan	- EGIE epaitegi bateragarrietan mantendu, sortu, eten edo lekualdatzeko proposamen bateratu bakarria aztertu, edo hala badagokio, egitea, edo/eta bere eskumen objektiboa hedatzea - EGIEen funtzionamendua eta epaitegi bateragarriena aztertzea, eta antolakuntza eta funtzionamendurako ereduak proposatzea - Kolektibo guztien prestakuntza hobetzea
Motibazioa eta prestakuntza duten pertsonak	Lekualdatutako langileen taldeekin lan egitea, beren lana eraginkortasunez gara dezaten eta biktimekiko arreta hobetu dezaten	- Informazioa, sentsibilizazioa, prestakuntza, arriskuak, ordainsariak eta dedikazioa berrikusi, eta, hala badagokio, aldatzea - Gure pertsonen motibazioan eta hobekuntzan lan egitea.
Espazioak eta instalazioak Segurua, erasoak eta irisgarriak	Espazio eta instalazioak egokitzea, zerbitzua era egokian emateko eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen segurtasuna ziurtatzeko	EGIEak eta epaitegi bateragarriak egokitzeko aukera aztertzea, espazio eta ekipamenduek justizia-zerbitzua era egokian ematen dela bermatu dezaten, bai eta biktimen eta horiekin batera doazen adingabeen babesa, intimitatea eta konforta zain dadin ere

Laguntzen duten zerbitzu koordinatuak	Emakumeen aurkako indarkeriarekin biktimekin lotutako JA babesteko zerbitzuen funtzionamendua berriz definitzea, zerbitzu horiek langile propioen nahiz kanpoko erakundeen bidez emanda ere, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako benetako laguntza izan daitezen	• JAri babesteko zerbitzu guztien jarduera-prozedurak ezartzea, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimekin kasuan: AMEI, ABIUak, TPJ, BLZ-EIKZ, DLJ, ZKEZ-GAKOA programa eta FE, beren jarduera zehazteko, bikoiztasunak saihestuz eta Bulego Judizial eta Fiskalarekiko eta horien arteko koordinazioa eta osagarritasuna sustatuz • Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntza ematea, informazioa eskuragarri jarritz eta Bulego Judizialarekiko, Bulego Fiskalarekiko, AMEirekiko eta JA babesten duten zerbitzu guztiekiko harremana erraztuz • EAEko abokatuen elkargoekin hitzarmen berri bat zehaztu, sinatu eta ezartzea; hitzarmen horretan, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urriaren 30eko 153/2018 Dekretuan aurreikusitako jarduerak aurreikusiko dira, bai eta 2016ko baliabide judizialei eta lege-laguntzari buruzko ebaluazioko gomendioak ere, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako ofiziozko txanda zehatzaren parte diren letradunekin lotuta
Beren eskubideak ezagutzen dituzten eta elkarri babesa ematen dioten biktimak	Informazioa prestatzea, hizkuntza argi eta erraza erabiliz, emakumeen aurkako indarkeriaren biktima direnek justiziarako eskubidea eta justiziaren funtzionamendua ezagutu ditzaten Biktimekin arteko harremana eta babesa sustatzea	• Beren eskubideekin eta justiziaren funtzionamenduarekin lotutako dokumentazioa egitea eta banatzea • Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimekin topaketak eta jardunaldiak sustatzea, beren esperientzia partekatu eta biktima berriak babeste aldera



8.2. Ekintzak

Lankidetza		
LK1	Partaidetza aktiboa: - Erakundearteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordean eta Batzorde Teknikoan - Sailarteko Jarraipen Batzordean eta Batzorde Teknikoetan (oraintsu EMAKUNDEk martxan jarriak) Inplikaturako zuzendaritzekin partekatutako jarraipen egituratua	<i>Martxan</i>
LK2	Genero-indarkeriaren aurkako Estatu-itunaren ziozko betebeharrak betetzen ote diren aurreikuspena egitea (EMAKUNDEri emandako erantzunaren bidez)	<i>2019 abe</i>
LK3	Protokoloak ezartzea, Justizia Sailburuordetzaren eremuan ematen diren zerbitzuak eta hiru foru-aldundietan eta EAEko udalik garrantzitsuenetan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten programa eta gizarte-zerbitzu nagusiak koordinatzeko	<i>2020 abe</i>
LK4	Lankidetza Arartekoarekin	<i>Martxan</i>



Organoak eta jarduera judiziala eta fiskala		
OJ1	Lantalde lankidea sortzea (JSO, EAEko Justizia Auzitegi Nagusia, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza eta beste eragile batzuk, esaterako abokatuen elkargoak), proposamen berri eta bakarra egiteko EAEn emakumeen gaineko indarkeriarekin lotutako organo judizialei buruz	2020 ots
OJ2	GI Eri eta auzitegi bateragarriari buruzko proposamen adostua onartzea Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban	2020 eka
OJ3	Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan lan egiten duten epaitegien funtzionamendua aztertzea, eta antolakuntza eta funtzionamendurako eredia proposatzea, honako hauek zehazteko: - Jarduera eta fluxuak bulego judizialean - Ertzaintzarekin, Doako Laguntza Juridikoarekin, Bulego Fiskalarekin, AMEIekin, ABIUekin, TPJekin, BLZrekin, EIKZrekin, FErekin eta ZKEZ-Gakoa programarekin harremanak ezartzeko sistema, eta - Biktimari informazioa eta arreta emateko sistema Bulego Judizialean, Bulego Fiskalean eta prozedura-motaren arabera zerbitzuetan	2020 uzt
OJ4	Adostutako antolakuntza eta funtzionamenduko eredia helaraztea, honakoak xede: - EAEJANen gomendioa - Fiskaltzaren instrukzio-gomendioa - Gobernu Idazkaritzaren protokoloa - Abokatuen elkargoekiko hitzarmena eta - JSOren mendeko zerbitzuen aginduak	2020 urr
OJ5	Diagnostiko bat eta sentsibilizazio eta prestakuntzarako plan bat zehaztea Justizia Administrazioan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimekin lotuta lan egiten duten eragile guztietako langileentzat, kolektiboentzat eta zerbitzuentzat	2020 eka
OJ6	Prestakuntza-plana garatzea	2020-2021



Motibazioa eta prestakuntza duten pertsonak		
PM1	Informazio-txosten bat egitea, harrera-agiri gisa, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen epaitegi eta zerbitzuetan lan egiten duten langile guztiei helarazteko, zerbitzu guztiek egiten dituzten jardueri buruzko informazioa jasota (OJ3rekin lotuta)	<i>OJ3ko epeen menpe</i>
PM2	EAIri buruzko prestakuntza-eskaintza espezifikoak berrikusi da, kudeatzaileei, izapidegileei, laguntzaileei, AMEiko langileei eta TPJko langileei zuzendua, eta zabaldu egin da, biktima mota horiei arreta enpatikoa emateko trebetasunekin lotutako edukiak barne	<i>Etengabea 2019-2021</i>
PM3	Nahitaezotasuna ezartzea, EGIEn eta epaitegi bateragarrietan lanera sartzen diren pertsonak, aurretiazko prestakuntza ez badute, sartu eta berehala jaso dezaten prestakuntza	<i>2020 api</i>
PM4	EGIEtan eta epaitegi bateragarrietan ordezkoen eta premialdietako langileen araubidearen aplikazioa aztertu da, funtzionamendua hobetzeko neurriren bat ezartze aldera: - Ez da aplikatzen baja estaltzeko hiru hilabeteko salbuespena - Premialdietarako langileak eskatzen badituzte, azterlan zehatza egiten da premialdiari erantzuteko	<i>Ezarria</i>
PM5	Lehentasunez aztertzea EGIEetako eta epaitegi mistoetako tutoretza-eskariak, orokorrean ezarritako baldintzak malguago bihurtzeko aukera baliatuta	<i>Ezarria</i>
PM6	Estatuan eta eskumenak dituzten beste autonomia-erkidego batzuetan ordaintzen diren osagarrien azterketa konparatiboa egitea, eta, abantailak eta desabantailak aztertuta, osagarri bat proposatzea (behin-behinekoa izango litzateke lanpostuak baloratu arte)	<i>2020 api</i>
PM7	EGIErekin lotuta lan egiten duten langileentzat arrisku psikosozialen azterketa zehatza egitea (prozesu-kudeaketako kideak, prozesu-izapideetako kideak eta laguntza judizialeko kideak, ABIU, TPJ eta EIKZko langileak, eta Lan eta Justizia Sailaren menpe zuzenean daudenak). Gobernantza Sailaren menpe dauden lan-kontratupekoen kasuan, sail horri helaraztea azterketa hori egiteko beharrezana	<i>2020 abe</i>
PM8	Justizia Ministerioaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren prebentzio-zerbitzuekin lankidetzan aritzea, azterketa hori osatu dadin beraiek beren mendeko langileen gainean egiten duten azterketarekin, erantzun integrala emate aldera.	<i>2020 abe</i>


Espazio eta instalazio seguruak, erosoak eta irisgarriak

ES1	Justizia Administrazioako epaile, fiskal eta letradunekin batera, Vitoria-Gasteizen landutakoa eta estatu-itunaren proposamenak kontuan hartuta, bete beharreko espazioen eta beharren estandarra zehaztea	2020 urt
ES2	Egungo egoera aztertzea. Aurre-diagnostikoa (funtzionamenduaren estandarra baino lehenagokoa), EAEko EGIEren eta epaitegi mistoen egoerari buruz	2017 urt
ES3	Ondare Zuzendaritzarekin aurreikustea eta negoziatzea Bilbon espazio berriak sartzeko aukera. Eskuratzea	2019 abe
ES4	Egungo egoeratik protokoloaren eta beharrianen estandarraren arabera gomendagarria den horretara garatzeko bilakaera proposatzea, bideragarria den aztertuz, eta bideragarriak diren kasuetarako, horien denbora eta aurrekontua zehaztuz	2020 ots
ES5	Proposamenak ezartzea. Gasteizko EGIE. Egindako jarduerak. Inaugurazioa	2020 urt
ES6	Proposamenak ezartzea. Genero-indarkeriaren epaitegietako espazioak egokitzeko urte anitzeko plana (Donostia, Barakaldo, Bilbo eta mistoak)	2020-2021


Laguntzen duten zerbitzu koordinatuak

LZ1	Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimekin lan egiten duten Justizia Administrazioa babesteko zerbitzu guztien funtzionamendua aztertzea, bikoiztasunak, disfuntzionalitateak eta egin gabeko jarduerak zehazteko, eta zerbitzuen funtzionamendua hobetu dadila proposatzea (OJ3rekin lotuta)	2020 eka
LZ2	Zerbitzuetako bakoitzaren eta horien arteko jarduera-prozedurak eta Bulego Judizial, Bulego Fiskal eta AMEIkiko harremanak dokumentatzea, bai eta kasuan kasuko gizarte-zerbitzuekikoak ere (OJ3rekin lotuta)	2020 eka
LZ3	Zerbitzu horien guztien koordinazioa proposatzea Justizia Zuzendaritzaren eskutik (aldizkako bilerak gorabeherak aztertzeke eta zuzentzeko, eta zerbitzuen hobekuntza posibleak)	Etengabea 2020-2021
LZ4	BLZk, modu egituratuan, biktimari laguntzeko funtzioa txertatu dezala proposatzea, tutoretza-orientazioa emanaz. "Zurekin" proiektu pilotua, ebaluatu ondoren, hala badagokio, 2021etik aurrera esleituko den kontratu berrian sartuko dena	2019 urr 2020 abe
LZ5	EAEko abokatuen elkargoekin hitzarmen berri bat zehaztu, sinatu eta ezartzea; hitzarmen horretan, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urriaren 30eko 153/2018 Dekretuan aurreikusitako jarduerak aurreikusiko dira, bai eta 2016ko baliabide judizialei eta lege-laguntzari buruzko ebaluazioko gomendioak ere, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako ofiziozko txanda zehatzaren parte diren letradunekin lotuta. Hitzarmen berri batek zehaztuko ditu hasierako prestakuntzaren eta jarraipeneko prestakuntzaren estandarretan bete beharreko gutxienekoak, esparru judizial guztietako arreta hobe, eta larrialdietarako gehieneko denbora	2020 mar
LZ6	Hitzarmenean ezarritakoaren jarraipena egitea, gorabeherak zuzentzeko	2020-2021
LZ7	ZKEZ indartzea, bertan sartzen delarik GAKOA programa	2020 urt

Beren eskubideak ezagutzen dituzten eta elkarri babesa ematen dioten biktimak

BI1	"Biktimaren eskubideak" agiria egin eta banatzea	2020 eka
BI2	"Prozesuko ibilbideak" agiria egin eta banatzea	
BI3	Emakunderekin lankidetzan, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen arteko topaketa eta babeserako dinamikak sustatzea	2020 eka



I. Eranskina: erabilitako laburdurak

ABIU	Auzitegiko Balioespen Integraleko Unitateak
AMEI	Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua
BEAI	Bikote-harremanetako emakumeen aurkako indarkeria
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
BGM	Barne Gaietako Ministerioa
BJB	Bulego Judizial Berria
BJFMZ	Bulego Judizial eta Fiskala Modernizatzeko Zuzendaritza
BJKN	Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia
BLZ	Biktimei laguntzeko Zerbitzua
CEDAW	Emakumeen aurkako Diskriminazio mota oro Desagerrarazteko Konbentzioa (Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination against Women)
DBLB	Delituaren Biktimei Laguntzeko Bulegoa
DLJ	Doako Laguntza Juridikoa
EABI	Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutua
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EAI	Emakumeen Aurkako Indarkeria
EAIB	Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Biktimak
EO	Estatuko Administrazio Orokorra
EB	Europar Batasuna
EBI	Euskadiko Birgizarteratze Institutua
EGIE	Emakumeen Gaietako Indarkeriaren Epaitegia
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea
EIKZ	Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Euskadiko Koordinazio Zentroa
FE	Deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak
FHZN	Familia eta Haurren Zuzendaritza Nagusia
GBBZN	Gizarte Dibertsitate eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia



GIGO	Genero Indarkeriaren Gobernu Ordezkaritza
GKE	Gobernuz Kanpoko Erakunde
IOM	Interpelazioaren Ondoriozko Mozioa
JA	Justizia Administrazioa
JABES	Justizia Administrazioa Babesteko Erregistro Sistema
JAZ	Justizia Administrazioaren Zuzendaritza
JM	Justizia Ministerioa
JS	Justizia Sailburuordetza
JZ	Justizia Zuzendaritza
LBP	Legez Besteko Proposamena
LJS	Lan eta Justizia Saila
OGZBM	Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa
TE	Toki Erakundeak
TPJ	Talde Psikosozial Judizialak
ZKEZ	Zigorrek Kudeatzeko Euskadiko Zerbitzua